

# Kontzeju

www.oñati.eus



Berbia Oñati



@BerbiaOñati



Baletina



Oñati Irratia

Oñatiko Udal aldizkaria | 2015eko Uztaila | 252. zenbakia



DELIA

## DRONEA

piloturik gabeko gailu hegalaria



### > ROBERTO ZABARTE

“Nire lanean izan dezakeen aplikazioak erakarrita hasi nintzen droneak”



“Oso ariketa terapeutikoa da droneak gidatzea; hain kontzentratuta egon behar duzunez, erlaxatu egiten zara”

# Droneak, gailu



**H**elburu militarrekin erabiltzen hasi ziren droneak aurreko mendearen bukaeran, baina orduz geroztik hasko zabaldu da piloturik gabeko aparatu hegalaria hauen erabilera arlo zibilean. Gero eta ohikoagoak bihurtzen ari dira gure artean. Oñatiko plazan bertan ere behin baino gehiagotan ikusi dugu halako bat hegan, ekitaldi ezberdinetarako aireko irudiak hartzen. Roberto Zabartek gidatzen zuen dronea, eta berarekin izan gara, armaiarma itxurako gailu hauei buruz gehiago jakin guran.

Duela urtebete eskas erosi zuen lehen dronea Zabartek. Irakaslea da Leioako Arte Ederretako fakultatean, eta gailu honek bere lan esparruan izan ditzakeen aplikazioak piztu zion interesa. “Batez ere praktikari ematen diogu garrantzia fakultatean. Nik, besteak beste, animazioa eta bideo-edizioa bezalako ikasgaiak ematen ditut, eta oso interesgarria iruditu zitzaidan, droneak aukera ematen duelako irudiak beste plano edo perspektiba batetik grabatzeko, eta gero muntaiak egiteko”.

## ARIKETA TERAPEUTIKOA

Gaur egun droneak gidatzen ikasteko eskolak ere badaude, baina Robertok berekasa ikasi zuen. “Teknologia berriekin ohituta bazaude, ez da zaila. Aparatu hauek, tamaina txikikoak behintzat, edozeinek erabili ahal izateko pentsatuta daude”. Hori bai, droneari eskua edo neurria ondo hartu arte, ordu batzuk sartu beharra dago. “Zehaztasun handiko mugimenduak egin behar dira, eta hasieran urduri zaudenez kosta egiten da. Nik hamabost bat hegaldi behar izan nituen, gutxienez, dronea ondo kontrolatu arte”.

Zentzumen guztiak erne eduki behar omen dira dronea gidatzerakoan. Horregatik, oso ariketa terapeutikoa dela dio Zabartek. “Mendira joan eta ordu pare batez honekin jolasean ibili ondoren, meditazio saio bat eginda bezala bueltatzen zara etxera. Hain kontzentratua egon behar duzunez, erlaxatu egiten zara”.

Internetetik doan jaisten den *software* baten bidez gidatzen dira droneak. *Wifi* bidez kontrolatzen direnez, konexio mota hori duen edozein gailu (ordenagailu, tablet, iPad smartphone...) erabil daiteke, edo bestela *joystic* batekin. “Dronea grabatzen ari den irudia ondo ikusi eta enkuadreak hobeto kontrolatu ahal izateko, hobe da pantaila handaigoa duen tablet edo iPad bat erabiltzea”.

# piloturik gabeko hegalarriak



## GIDATZEKO MODUAK

Droneak gidatu eta kontrolatzeko bi aukera daude: modu programatuan, GPS bidez, edo eskuz, norberak kontrolatuta. “GPSa jartzen badiozu, sateliteak antzematen duenean mapa bat agertzen zaizu pantailan, eta hegaldiaren programazioa egin dezakezu bertan, igaro behar dituen tarteko puntuak zehaztuz. Puntu bakoitzean zein altuera hartuko duen, biraketa angeluak eta beste hainbat parametro ere zehaztu daitezke”. Programatutako hegaldia eten nahi izanez gero, ‘Home’ sakatu eta, dagoen lekutik dagoela, abiapuntura itzuliko da dronea, bidean oztoporen bat (poste bat, zuhaitz bat...) aurkitzen ez badu. Horregatik, GPS bidez gidatu behar baduzu, eremu ireki batean egotea komeni da, eta ez hirigunean”.

GPSaren aukera oso interesgarria da zenbait aplikaziotarako, baina Robertok nahiago izaten du eskuz gidatu, “dibertigarriagoa delako”. Eskuz gidatzerakoan ere dronea gobernatzeko bi modu daude, Zabartek azaldu digunez; “bat da, zu zeu barruan joango bazina bezala; eta bestea berriz, zu zeu erreferentzia izanik, hau da, agintzen dizkiozun mugimenduak zeurekiko izatea. Bigarren aukera errazagoa da eta azkarrago ikasten da”.

Aplikazio zibiletarako erabiltzen diren droneak elektrikoak izaten dira (bateriekin dabilta) eta gama ertaineko aparatuek 30 minutuko autonomia izaten dute. Drone profesionalak ere ez omen dute ordubete baino gehiago irauten, gailuak ahalik eta arinena izan behar baitu. Robertoren droneak 600 gramo pisatzen du, gehienez, osagai guztiak jarrita.

## EZ DIRA OSO GARESTIAK

Droneen merkatua egunetik egunera garatzen ari da, baina gehiegi gastatu gabe aparatua on bat erosteko aukera dago.

**“Dronea gidatzeko bi aukera daude: modu programatuan, GPS bidez, edo eskuz norberak kontrolatuta”**

**“Ia ia nahi adina erabilera izan ditzake droneak ezartzen zaion kamera edo sentsorearen arabera”**

“Probak egiteko erosi nuen lehenengo droneak 50 euro balio zuen, eta gaur egun daukadanak 600 euro, asko jota, GPS eta osagarri guztiekin; 800 euroren truke aparatua erdi-profesional bat eskura daiteke. Hortik gora, jakina, nahi adina gastatzekoa aukera dago”.

Drone guztiek bideo-kamera integratua izaten dute eta HD kalitatean grabatzen dute. “Gainera, zuk nahi duzun kamera jarri ahal diozu droneari, eta irudi estabilizatzaie batekin, kalitate eta bereizmen handiko irudiak grabatu daitezke”.

Pelikula eta dokumentalak grabatzeko, topografia lanak egiteko, arrain-bankuen jarraipena egiteko... Ia-ia nahi adina erabilera izan ditzake droneak, ezartzen zaion kamera edo sentsorearen arabera. Tamalez, armak ere jartzen dizkiete nahi baino gehiagotan.

## ALEGALTASUN EGOERA

Droneak ezin dira erabili aireportu inguruetan, eta debekatu-ta dago 300 metrotik gora igotzea. Gainerakoan, oraindik ez dago gailu hauen inguruko araudi garbirik, baina laister aterako omen dute, gero eta gehiago erabiltzen baitira.

Batez ere segurtasunaren gaia landu eta zaindu beharko du araudiak, baina intimitatea urratzearen inguruko araudia ere beharko omen da, paparazziak ere hasi omen direlako gailu hauek erabiltzen.



# Etxean egindako GARAGARDOA

> Gero eta zabaldiago dago garagardoa etxean egiteko ohitura. > Errekaldeko jaietan adibidez, Oñatiko bost garagardogileren zerbezak dastatzeko aukera egon zen.

Artisau eran egindako garagardoarekiko interesa eta zaletasuna asko zabaltzen ari da. Gipuzkoan, adibidez, garagardo artisaua merkaturatzen duten zazpi bat enpresa sortu dira azken urteotan. Azokak ere antolatzen dira, eta garagardo mota honetan espezializatutako taberna edo lokalak ere ari dira sortzen

Oñatin ere badira garagardoa etxean egiten dutenak. Maila apalagoan hori bai, norberak edo lagun artean kontsumitzeko adina egiten dutenak. Aurtengo Errekaldeko jaietan esterako, herriko bost garagardogileren zerbezak dastatzeko aukera egon zen.

Duela hiru bat urte hasi ziren garagardoa egiten, eta orain engantxatuta daudela aitortzen dute. “Behin probatu eta gero, engantxatu egiten zara, plazer handia delako norberaren edo lagun baten garagardoa dastatu ahal izatea”.

Oraingoz, autokontsumorako egiten dute, eta ingurukoekin elkarbanatzeko. Oinarrizko ekiporekin 23 litroko lotea ateratzen da ekinaldiko.

## EZ DA ZAILA, EZTA GARESTIA

Ez omen da zaila garagardoa egitea, eta inbertsio handirik ere ez da egin behar. “Traste ugari behar dira, baina oinarrizko kit oso bat 100 eurotan eskura daiteke. Gero,

noski, kit hori hobetzen joan ahal da, (plastikozko ontzien ordez inoxidableak erabilia, tenperaturara kontrolatzeko tresnak, muztioa hozteko serpentina...).

Uste baino errazago lortzen omen dira emaitza onak. Prozesua ondo ulertzea da inportantea, garagardoa galduko duen akats haundirik ez egiteko; baina ez omen da aparteko doirik behar. Denbora eta gogoa.

## GARBITASUNAREN GARRANTZIA

Garbitasuna ere oso garrantzitsua omen da. “Oso arduratsua izan behar da garbitasunarekin, bestela lote oso bat pikutara joan daiteke. Fementazioa legamiak burutzen du, mikro-organismo biziak daude hor tartean azukrea alkohol bihurtzen dutenak, eta behar ez den zikinen bat (bakteriak,...) egonez gero prozesua eraldatu ahal da, zapore edo usain



Unai Murgiondo eta Axier Iraeta, Oñatiko garagardogileetako bi.

## OINARRIZKO MATERIALA

Ehotzaile bat (malta ehotuta eros daiteke); mazeradore bat (kaping-eko nebera bat izan daiteke, iturriduna); eltze bat; ontzi pare bat (iturridunak) fermentadore moduan erabiltzeko; densiometro bat (0-100°C); txapak jartzeko tresna; silikonazko tutu bat; oxigeno aktibozko xaboa materiala esterilizatzeko; botilak; txapak; eta etxean eduki ahal ditugun beste tresna batzuk (koladorea, baskula, enburua...). Oinarrizko kit osoa 100 eurotan eskura daiteke

eskasak sortuz. Pazientzia behar da material guztiak behar bezala garbitzeko”.

Prozesuko urrats guztiek dute garrantzia, baina konplikatuena, agian, muztioa azkar hoztea da. “Garrantzitsua eta konplikatu da egosi behar den mostoa (100°C) ahalik eta azkarren hoztea 25°C ingururaino, momentu horretan legamia gehitu ahal izateko. Hozteko tarte horretan mostoa beste bakterio batzuekin kutsa daiteke eta fermentazioa ez litzateke behar bezala burutuko”.

Lau osagai nagusi ditu garagardoak: ura, garagarra (beste zereal batzuk ere gehitu daitezke; garia da ezagunena), lupulua eta legamia.

Ura ez beste hiru osagaiak denda espezializatuetan edo internetez eros daitezke; 23 litro inguruko lote bat egiteko osagaiak 30-35 euro inguruko kostua dute.

Erabiltzen den urak ere badu bere garrantzia. “Ura biguna edo gogorra izan ahal da dituen gatzen arabera, PH-a ere ezberdina izan dezake... Lehen, garagardo lan-tegiak ur iturburu baten alboan egiten ziren, eta urak berak ezaugarri berezi batzuk ematen zizkion garagardoari. Gaur egun koizle handiek ura tratatu egiten dute, beti ur berdina erabili ahal izateko produkzio prozesuan. Guk hemen inguruko iturburuetako ura erabiltzen dugu (Troska,...)”.

#### GARAGARDO MOTAK

Era askotako garagardoak egiten dituzte. Errekalden egin zuten dastaketara bost mota ezberdinekoak eraman zituzten: *Lager*, *Blanche*, *Pale Ale*, *Porte* eta *IPA*.

Prozesuaren eta erabiltzen diren osagaien arabera lortzen dira garagardo mota ezberdinak; hala, legamiaren arabera, garagardo ALE (fermentazio altukoa) edo LAGER izango da; maltaren xigortze-mailaren arabera ilunagoa edo argiagoa; lupulu kantitateak mikaztasuna markatzen du, eta, gainera, lupulu bakoitzak bere ikutua ematen dio: usaina, zaporea... Hamarnaka lupulu ezberdin daude

Garagardo artisaua eta zerbeza


## ELABORAZIO PROZESUA

Garagardoa egiteko prozesuak 6-8 aste irauten du.

- 1. Garagarra malteatu:** garagarra germinatu eta xigortu (normalena garagarra aurrez malteatuta erostea da).
- 2. Garagar malta ehotu.**
- 3. Ehotutako malta ur beroarekin nahastu (65°C inguru) eta gutxi gora behera bi ordutan beratu (mazeratu).**
- 4. Lortutako likidoa (muztioa) eltze baten egosi (1,5 ordu inguru).** Egosi bitartean lupulua gehitzen da, fase desberdinetan.
- 5. Egosi ondoren, lupulua kendu eta garrantzitsua da ahalik eta azkarren muztioa hoztea.**
- 6. Muztioa 30°C. azpitik dagoenean fermentadorera pasatu eta legamia (levadura) gehitu. 2-4 aste artean egon behar da fermentatzen.**
- 7. Boteilaratu.** Botilan gutxienez 3 bat aste utzi behar da ontzen.



Lau osagai ditu garagardoak: ura, garagarra, lupulua eta legamia



“Behin probatu eta gero engantxatu egiten zara; plazer handia da norberak edo lagunek egindako garagardoa dastatzea”

Ehotutako malta ur beroarekin nahastu eta beratu edo mazeratzeko uea.

industrialaren aretean alde handia dago. “Freskarri moduan edan ohi dugun zerbeza gorputz gutxi-koa eta malta eta lupulu zapora gutxi-koa izaten da. Gainera, produktua merketzen duten beste malta batzuk ere baditu (arzoa, artoa...) eta baita kontserbanteak, koloranteak... Zerbeza artisauek lehen aipatutako lau osagai nagusiak bakarrik ditu eta garagardo zapora gehiago dauka”.

#### AHOLKUAK

Garagardo gustatuz gero eta kuriositate apur bat izanez gero merezi du proba egiteak. “Lagun batzuen artean beharrezko ekipoa erosi eta aurrera. Emaitzak merezi du. Eginez ikasten da, baina hasi aurretik oso gomendagarria da prozesua ezagutu eta ulertzen saiatzea (libururen bat irakurri, interneten kuxkuxeatu, beste ekoizle batzuen esperientzia ezagutu...).

# Aginte makila beste lau urterako

## Udalbatza berria eratu da eta Mikel Biain aukeratu dute alkate



Rafael Kortabarria zinegotziaren eskutik jaso zuen txibita alkateak.

Espero bezala Mikel Biain Berraondo (Oñati, 1977) izendatu du alkate maiatzaren 24ko udal hauteskundeetatik irtendako udalbatza berriak.

Udaletxeko batzar aretoa lepo beteta zela, ekainaren 13an egin zen udalbatza berria eratzeko osoko bilkura berezia. Hamazazpi zinegotziek karguaren jabetza hartzeko legezko tramitea beteta ('legeak hala behartuta eta ezinbestean' formula erabili zuten Konstituzioa errespetatuko dutela zin egiteko), alkatea aukeratzeko bozketa egin zuten. Mikel Biainek EH Bilduko hamar zinegotzien botoak jaso zituen, eta Miren Elgarrestak EAJko zazpienak.

Beraz, Mikel Biainek jarraituko du alkatetzan hurrengo lau urteetan, 2019ra arte, bere bigarren agintaldia izango den honetan.

Koroporazio berrian adinez nagusia den Rafael Kortabarriaren eskutik jaso zuen Biainek alkatearen ikur den txibita edo aginte makila, udaletxeko batzar areto nagusian bildutako herritarren txalo artean.

Ondoren alkate doinuarekin batera kontzejupera jeitsi zen udalbatza berria eta ohorezko aurrekuarekin egin zieten ongietorria bertan bildutako herritarrek.

Udalbatza berria osatzen duten 17 zinegotzietatik 11 berriak dira karguan. Uztailaren 2an egingo da arlo ezberdinetako lan batzordeak eratzeko osoko bilkura.



Herritar asko batu zen udaletxeko batzar areto nagusian.



Ohorezko aurrekua eskaini zioten udalbatza berriari.

### Demokrazia aldiko alkteak Oñatin



Eli Galdos  
1979 - 1991



Angel Iturbe  
1991 - 2003



Andoni Gartzia  
2003 - 2006



Lourdes Idoiaga  
2006 - 2011



Mikel Biain  
2011 -



## &lt; BI UDAL TALDE &gt;

**EH Bildu** / Mikel Biain**“Udal gobernuko atek zabalik egongo dira herritar guztientzat”**

**E**txekoei eskerrak emanez hasi zuen hitzaldia Mikel Biainek, alkate izendatu berritan. Azken lau urteetan zinegotzi lanetan jardun dutenak ere gogoan izan zituen, herrigintzan egindako lana eskertuz, eta ongietorria eman zien udalbatza osatzen duten kide berriei.

Biainek eskerrak eman zizkien, bereziki, maiatzeko hauteskundeetan botoa EH Bilduri eman zioten herritarrei. Ilusio berrituarekin daudela esan zuen, aurreko lau urteetan egindako lanak herriaren babesa jaso duelako.

Udal gobernuko atek herritar guztientzat zabalik egongo direla esan zuen alkateak, eta aintzat hartuko dituztela oposiziotik edo ordezkari politiko barik geratu diren herritarrengandik etor daitezkeen proposamen eta ekarpenak.

EAJrekiko diferentzia nabarmenak eta oinarritzkoak dituzten arren, amankomunean dituzten puntuetan indarra jartzeko borondatea agertu zuen Biainek, horretarako oinarriak zerrendatuz: Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidean urratsak ematea; Udalaren gardentasuna bermatzea; Herritarren partehartzea sustatzea; Politika sozialetan atzera pausurik ez ematea; Ingurumena babestea.

Azkenik, arrazoi ezberdinengatik osoko bilkuran egoterik izan ez zuten herritarrak gogoratu zituen alkateak, eta agur berezia bidali zien Aitto, Joseba, Xabin eta Xabierri.

**EAJ** / Miren Elgarresta**“Leial, zintzo eta adoretso erantzungo diogu herriak emandako konfiantzari”**

**M**iren Elgarresta EAJko udal taldeko buruak Mikel Biain alkatea zorionduz hasi zuen hitzaldia. Azken lau urteetan zinegotzi lanetan jardun dutenen lana eskertu ondoren, maiatzeko hauteskundeetan EAJri babesa eman zioten herritarrei bereziki eskerrak eman zizkien, eta jasotako konfiantza horri leial, zintzo eta adoretso erantzungo diotela esan zuen.

Oposizioko lana gobernuan egotea bezain arduratsua dela gaineratu zuen. EAJren programa osatzeko herritarrek egindako ekarpenak aurrera ateratzen saiatuko dira, baina herritar guztien interesak defendatuko dituztela adierazi zuen Elgarrestak, herriaren mesederako diren proiektuak bultzatuz.

Udalbatzari dagokionez, egunegun sortuko diren tira-bira eta zailtasunak zailtasun, elkarrekiko errespetuz jokatzeko eta elkar ulertzeko ahalegina egingo dutela esan zuen EAJko bozeramaleak. Elkarren arteko jarrerak jatorrak izatea eskatu zuen, ezinbestekoa izango baita, esku artean duten erronka aurrera eramateko.

Gobernu taldearen lana arretaz zaindu eta kontrolatuko dutela gaineratu zuen, horixe baita oposizioko alderdiaren eginkizun garrantzitsuenetakoa, eta herritar guztien zerbitzura egongo direla hurrengo lau urteetan, herritarren beharretara egokituz, herriak hala nahi izan duelako.

**italde**

TALDE ERAIKITZAILE - SUSTATZAILEA

ETXEBIZITZETAN AUKERARIK HANDIENA

- San Martinen
- Kurtzekuan
- Kasablankan

PREZIO BEREZIAKI!

\* zuzte informatzera

Ramón Irizar kalea 2 • OÑATI • Tel. 943 782 707 • www.italde.com

## UDALAREN EGITURAKETA BERRIA

# Hamabi lan batzorde izango ditu udal berriak



**PARTE HARTZEA**  
Batzordeburua:  
Nerea Zubia



**INGURUMENA ETA LANDA GARAPENA**  
Batzordeburua:  
Oier Irizar



**HIRIGINTZA ETA ZERBITZUAK**  
Batzordeburua:  
Irati Etxeberria



**PERTSONALA ETA BARNE ANTOLAMENDUA**  
Batzordeburua:  
Mikel Biain



**BERDINTASUNA**  
Batzordeburua:  
Leire Zumalde



**KIROLA**  
Batzordeburua:  
Borja Moia



**KULTURA**  
Batzordeburua:  
Nerea Zubia



**GAZTERIA**  
Batzordeburua:  
Kepa Zelaia



**ONGIZATEA**  
Batzordeburua:  
Susana Altuna



**OGASUNA**  
Batzordeburua:  
Rafa Kortabarria



**EUSKARA ETA HEZKUNTZA**  
Batzordeburua:  
Nerea Zubia



**SOZIOEKONOMIA**  
Batzordeburua:  
Ana Martin

Uztailaren 2an egitekoa da udal organigrama berria finkatzeko bilkura berezia. Bertan emango dira jakitera gobernu taldea osatuko duten kideen izenak, eta datozen lau urteetarako antolatu diren lan batzordeak eta hauen osaketa.

Aldameneko taulan ikus daitekeen moduan, hamabi lan batzorde izango ditu udal berriak, aurreko agintaldian bezala, baina bi berritasun edo aldaketarekin: batetik ‘Parte hartzeak’ batzorde propioa izango du (orain arte Barne Antolamendua eta Komunikazioa batzordean egon da); bestetik, aurreko agintaldian batzorde propioa izan duten **Ingurumena** eta **Auzoak eta Landa Garapena** sailek bat egingo dute.

Aurrerantzean zerbitzuekin lotura duen auzoetako gaiak (farolak, biondak, asfaltatzeak...) Hirigintza eta Zerbitzuak batzordean landuko dira, auzoetako behar eta eskariei bizkorrago erantzuteko helburuarekin.

Lan batzordeetan udalerekin ordezkatuta dauden bi alderdietako kideek parte hartzen dute. Astero edo hamabostero biltzen dira, lan kargaren arabera. Bestalde, udal gobernu taldea (EH Bilduko kidez osatua) astero bilduko da, eta hileko azken ostegunetan osoko bilkura.

caravanas  oñate




• Galdaragintza - Caldereria  
Ondul zuhaiztia, 25 • Tel: 943 71 63 50

[www.caravanasonate.com](http://www.caravanasonate.com)

• BIZIKLETAK  
• ERREMOLKEAK  
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK  
Ondul zuhaiztia, 25 • Tel: 943 78 05 65  
Atzeko kale, 32 (erakusketa)



# PARTE HARTU HERRIKO JAI BATZORDEAN

Udaleko Kultura saila hasita dago San Migel eta Errosarixo jaietako egitaraua lantzen, eta zeregin horretan herritarrek parte hartzea nahi du. Horregatik, herritar guztiak gonbidatzen ditu uztailaren 7an egingo den Jai Batzordean parte hartzera.

**UZTAILAK 7, ASTEAZKENA, 18:30, KULTUR ETXEAN**

## SAN MIGEL JAIETARAKO DEIALDIAK

### Herri Eguneko Talo tabena Kudeatzeko

Herri Eguneko talo tabernaren kudeaketaz arduratzeko deialdia egin du Udalak. Horniketaz eta ustiaketa osoaz arduratuko da taldea. Lortutako irabaziak taldearentzat izango dira.

### Herri Eguneko bazkaria zerbitzatzeko

Herri Eguneko bazkarirako mahaiak atondu eta bazkaria zerbitzatzeko duen taldea aukeratzeko deialdia egin du Udalak. Gutxienez 40 lagunez osatuta egon behar da, eta eguerdiko 13:00erako kiroldegi aurrean egoteko konpromisoa hartzea. Talde batek baino gehiagok izena emango balu, kudeaketa partekatua izango litzateke.

### Jai egitaraurako argazkiak bidaltzeko

San Migel eta Errosarioko jai egitarauan herritarren argazkiak sartzeko deialdia egin du Udalak. Jaiekin lotura duten argazkiak izan behar dira, edozein ikuspegitik hartuta, koloretan edo zuri-beltzean. Argazkiak 300 pixeleko kalitatean aurkeztu behar dira. Egilearen izen-abizenarekin argitaratuko dira, baina ez da ordainsaririk emango.

### Izena emateko epeak

Goiko deialdietan parte hartzeko kultur etxean eman behar da izena (943780353/ [kultura.idazkaritza@onati.eus](mailto:kultura.idazkaritza@onati.eus)) uztailaren 10a baino lehen.



### San Migel jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa abian

Jai egitarauaren azaleko irudia aukeratzeko lehiaketa deitu du udaleko Kultura sailak. 18 urtetik gorako edozeinek parte har dezake, teknika librean. Lanen neurria 50x70zm. (bertikala) izan behar da, eta derrigorrez agertu behar da 'Oñatiko Jaixak 2015' testua. Adituen epaimahaiak aukeratzeko duen lanak 500 euro (horietako 200 txantxitan) jasoko ditu. Bestalde, herritarren boto gehien jasotzen duen lanarentzat 200 txantxiko saria dago. Uztailaren 17a (13:00) baino lehen aurkeztu behar dira lanak kultur etxean.

Haur eta gazteei zuzendutako atala ere deitu du Udalak, 18 urtetik beherakoentzat. Kasu honetan lanen gutxieneko tamaina A4 izango da, eta irabazleak oparia jasoko du.

### Herri Eguneko azokan parte hartu nahi duten artisautzako deialdia

Urriaren 3an ospatuko den Herri Eguneko artisauen azokan parte hartu nahi dutenek uztailaren 20a baino lehen eman behar dute izena kultur etxean ([kultura.idazkaritza@onati.eus](mailto:kultura.idazkaritza@onati.eus)) norbearen lana azalduz. Artisau lanen kalitatea eta originaltasuna, eta azokan bertan lana ikusteko aukera egotea baloratuko da, besteak beste. Herriko artisautzat 8 toki egongo dira.

**PLANTXaprest**  
 Plantxa zerbitzua  
 Esther Otxoa-Aizpurua   
**ZERBITZU AZKARRA ETA EROSOA**  
 Arropo garbia jasotzera joango gara.  
 48 orduan, plantxatuta bueltatuko dizugu. **DEITU!**  
**Telefona: 662 041 498**

**Almaraz**  
 Inmobiliari gestioa  
 Carmelo Pérez de Almaraz  
 "Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, **dei** iezaguzu".  
 Tel.: 679411444  
 www.almaraz.info

**U**ztailen hastekoak ziren Ugarkalde eta Olabarieta arteko bizikleta eta oinezkoentzako bidegorria eraikitze lanak, baina adjudikazio prozesuan nahi baino gehiago luzatuko denez, ez dago zehatz esaterik noiz hasiko diren. Abuzturako behintzat lanak hasita egotea nahi dute udaleko Hirigintza arduradunek. Sestra Ingenieritza eta Arkitektura bulegoak idatzitako proiektuaren arabera, 20 asteko epea aurreikusten da lanak burutzeko, baina enpresa lizitatzailerik lau asteren buruan egiteko asmoa agertu dute. Bidegorria eraikitze lanek 514 mila euroko (+BEZ) aurrekontua dute.

### ERREPIDEA ESTUTUKO DUTE

Ondoko argazkian ikusten den moduan, Oñatitik Legazpira doan GI-2630 errepidearen ezkerreko (iparraldeko) ertzean egokituko dute bidegorria. Horretarako, inguruko lursailei ahalik eta gutxien eragin eta irtenbiderik ekonomikoena lortu ahal izateko, GI-2630 errepidea estutu egingo dute pittin bat. Gaur egun 8 metroko zabalera du errepideak, 3,5 m.-ko bi erreilekin, eta gero 3m.-ra estutuko dituzte erreilak, bidegorria egokitu ahal izateko. Danera 17 partzela ezberdinetako 1.500 metro kuadro inguru desjabetu behar izan ditu Udalak bidegorria eraikitzeke.

### 800m.-ko BIDEGORRIA

Ugarkaldeko azken etxeen parean hasi (bertaraino eginda dago bidegorria) eta Olabarietako autobus geltokiraino luzatuko da bizikleta eta oinezkoentzako bide berria; 800 metro luze guztira. %3tik beherako pendizarekin ibilbide guztian zehar.

Bidegorriak 3 metroko zabalera izango du, baina ibilbideko bi lekutan bidegorria bera ere estutu egingo da pittin bat, kostu handiagoko obrak ekiditearren.

Ibilbide osoan zehar argiztatuta egongo da bidegorria, eta egurrez estalitako hesi metaliko bat ere jarriko dute bide guztian, errepidetik babesteko helburuarkein.

### LURPEKO PASABIDEA OLABARRIETAN

Herriko auzo ezberdinetako ibilbideak elkarrekin lotu eta 'gerriko berdea' izenez ezagutzen den ibilbide sarea osatuz Olabarietan (Aiausti parean) lurpeko pasabidea egokitzeko asmoa du Udalak. Hala, Murgia eta Olabarietako ibilbideak lotuta geratuko dira modu seguruan, Udanako errepidea zeharkatzen ibiltzeak dakarren arriskua ekidindo baita.

Udalbatzak martxoaren 26ko osoko bilkuran onartu zuen lurpeko pasabidea eraikitzeke proiektua, eta joan den astean atera ditu lanak lizitaziora 173 mila euroko aurrekontuarekin.

Pasabidea eraikitzen hasi aurretik Olabarietako 70ean dagoen pabilioia eraitsi behar dute. Eraisketa lan hauek datozen asteetan egingo dira, eta lurpeko pasabidea eraikitzeke lanak ere lehenbailehen egin nahi dituzte Hirigintza arduradunek.



### ERREPIDEA ESTUTU

> Errepide bazterrean bidegorria egokitu ahal izateko, Oñatitik Legazpirako GI-2630 errepidea estutu egingo dute. Gaur egun 8m.-ko zabalera du, 3,5m.-ko bi erreilekin, eta gero 3m. izango ditu errail bakoitzak.

**HARALD LINDER**  
ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK  
PERSIANAK, LEHIOAK, LUB FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA  
SUKALDEAK, KOMONAK eta ASKOZ GENIAGO  
OLAKUA 12 B 4 etk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA  
695 78 91 04 - 943 04 47 77

 **ZURICH**  
M<sup>o</sup> del Mar Urrutia Negueruela  
Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

# Ugarkalde-Olabarrieta bidegorria

## Uda partean hasiko dira eraikitze lanak



### ERREPIDEA DESPLAZATU

> San Cristobalen santutxua errepide bazterrean dagoenez, inguru horretan GI-2630 errepidea eskumako alde-runtz desplazatu beharko dute pittin bat, bidegorriak eta errepideak gutxieneko zabalera izan dezaten.

PLANTA GENERAL  
EJATO 1/1000  
EJATO 1/2000



TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6  
Tel.: 943 71 62 96  
20560 OÑATI

# FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOIA



## UNAI KORTABARRIA | Udaleko Enplegu teknikari berria



**“Industria pittin bat errekeratzen hasi bada ere, 2008ko datuetatik oso urruti gaude oraindik. Urte hauetan bikoiztu egin da langabezia tasa eskualdean”**

**U**NAI KORTABARRIA (ARAMAIO, 1979) UDALEKO ENPLEGU TEKNIKARI BERRIA DA EKAINAZ GEROZTIK, ERRETIROA HARTU DUEN JESUS MARI UGARTEREN ORDEZ. AURRETIK MANKOMUNITATEKO GARAPEN AGENTZIAN JARDUN DU LANEAN BEDERATZI URTEZ, ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEI LAGUNTZA EMANEZ. HEMENDIK AURRERA LAN BILA EDO ENPRESA BAT SORTZEKO ASMOTAN DABILTZAN OÑATIARREI LAGUNTZA EMATEN SAIATUKO DA.

**Hilabete daramazu Oñatin lanean. Ezagutzen al duzu dagoeneko bertako egoera sozioekonomikoa. Zer nabarmenduko zenuke?**

Industria sektorea ondo ezagutzen dut Mankomunitateko Garapen Agentzian lan egin dudalako ia bederatzi urtez enpresa txikiei laguntzen, eta beste sektoreak ere nahiko ondo ezagutzen ditut.

Oñatik langabezia tasa txikiagoa du eskualdeko herri handiekin alderatuz, eta alde horretatik herri erreferentea da.

**Maiatzeko datuen arabera, Oñatiko langabezia tasa %8tik jeitsi da, aurrenekoz 2011tik.**

Oñatiko datu zehatzak hobeto aztertu behar ditut oraindik. Oro har eskualdeko datuak hartuta,

2008tik hona bikoiztu egin da langabetu kopurua, eta egia da, bai, industria pittin bat errekeratzen hasi dela, baina zerbitzu arloan goraka doa langabezia eta egoera oso delikatua da oraindik; 2007ko datuetatik urruti gaude oraindik.

**Enpresa ideiarene bat abian jarri nahi duten herritarrei laguntzea izaten da zure funtzioetako bat.** Bai, alde batetik bideragarritasun azterlana egiteko aholkularitza tekniko eta tutoritza zerbitzua eskaintzen diegu ekintzaileei.

Horrez gain, dirulaguntza ere ematen die Udalak, sortutako enpresa eta lanpostu kopuruaren arabera.

Bestalde, aktibitatea aurrera ateratzeko bulego edo tailerren

**MAIATZEKO  
DATUEN  
ARABERA  
OÑATI  
LANGABEZIA  
TASA %8TIK  
JEITSI DA,  
AURRENEKOZ  
2011TIK**

bat behar badu, Udalak Olaburun dituen moduletako bat eskaintzen die, merkatukoak baino baldintza askoz hobeeetan.

### Langabetuentzako ikastaroak ere antolatzen dituzue.

Bai, azken batean lan merkatuan sartu ahal izateko prestakuntza ikastaroak izaten dira. Batetik, informatika arlokoak (ofimatika, linux, konfigurazioa eta konponketak, segurtasuna...).

Bestalde, azken bi urte hautean 'Etxez-etxeko edadetuen zaintza' ikastaroa eskaintzen ari gara, beharra dagoelako eta, gainera, laister derrigorrezkoa izango delako profesionaltasun agiria arlo honetan lan egiteko.

Irailean 'Zaintza'-ko ikastaro berri bat hasiko da, 2. mailakoa. Parte hartzeko beharrezkoa da 1go mailakoa eginda izatea, edo Eskola Graduatua edukitzea, edo sarrera azterketa gainditzea. Beraz, interesatuak pasa daitezela Enplegu bulegotik (Bidebarrieta 18 / 943037700) izena ematera.

### Titulatu berriei zuzendutako beka programa bat ere jarri du abian Udalak. Nolako erantzuna izan du?

Udalaren eta herriko enpresen artean sortutako Sozioekonomia Forotik irten zen proiektu hau. Helburua da, titulatu berriei aukera ematea herriko enpresetan lan praktikak edo proiektuak garatzeko; hau da, enpresek aurkezten dute beraien interesekoa den proiektu bat, eta Udalak aukeratzen du proiektu horretarako profil egokiena duen gaztea, eta proiektuaren arabera 3 eta 6 hilabete arteko beka ematen dio (hileko 600 euro) eguneko sei orduko dedikazioaren truke.

Horretarako titulatu berrien lan poltsa osatzen ari gara. Oraingoz 7 gaztek eman dute izena. Bi enpresen proiektuak ere baditugu mahai gainean, baina momentuz ez daukagu proiektu horietarako egokiak diren profilak poltsan. Beraz, animatu egin nahi ditut herriko titulatu berriak lan poltsan izena ematera. Titulua azken bi urteetan lortutakoa izan behar da.



> Erretiroa hartu duen Jesus Mari Ugarteren lekua beteko du Unai Kortabariak.

## “TITULATU BERRIEN LAN POLTSA OSATZEN ARI GARA HERRIKO ENPRESETAN PRAKTIKAK EDO PROIEKTUAK EGITEKO. ANIMATU EGIN NAHI DITUGU GAZTEAK BERTAN IZENA EMATERA”

### Langabetuak kontratatze programak ere badituzue, ezta?

Alde batetik Udalak berak egiten dituen kontratazioak daude, Lanbideren laguntzarekin. Orain, adibidez, lau pertsona kontratatu ditugu 6 hilabeterako; horietako hiru baso-lanetan ibiliko dira, eta beste bat udal brigadan.

Bestalde, Udalak badauka dirulaguntza programa bat langabetuak kontratatzen dituzten herriko enpresa txikientzat (100 langiletik beherakoak). Kontratatzen duten herriko langabetu bakoitzeko (gutxienez sei hilabetekoa) 1.000 euro jasoko dute (emakumezkoa bada, edota langabezia 12 hilabete baino gehiago bada, 1.300 euro, eta familia karga bakoitzeko %10 gehiago).

Iaz herriko zazpi enpresek baliatu zuten laguntza hau, eta aurten, dagoeneko, batek egin du eskaera.

**LANGABETUAK  
KONTRATATZEN  
DITUZTEN HERRIKO  
ENPRESA  
TXIKIENTZAKO  
(100 LANGILETIK  
BEHERA)  
DIRULAGUNTZA  
PROGRAMA BAT  
DAUKA UDALAK**

## Pertsonen zaintzari buruzko ikastaroa irailetik aurrera

'Etxez-etxeko edadetuen zaintza' izeneko 2. mailako ikastaroa egingo da irailetik aurrera. Parte hartu ahal izateko beharrezkoa da 1. mailakoa eginda izatea, edo Eskola Graduatua edukitzea, edo sarrera-azterketa gainditzea. Interesatuak lehenbailehen izena eman Enplegu departamenduan (Bidebarrieta 18 / 943037700). Gogoratu, laister derrigorrezkoa izango dela profesionaltasun agiria etxez-etxeko edadetuen zaintza lanetan aritzeko.

# GARBIGUNE IBILTARIA

## Olakuan egongo da hilean behin

Olakua-San Lorentzo, Ugarkalde eta San Martin auzoko herritarrei zerbitzua gerturatzeko asmoz, uztailetik aurrera Olakuan (BM parean) jarriko dute Garbigune ibiltaria hilean behin. Zerbitzu hau hamabostean behin, ostegunetan, ematen da Oñatin, baina orain arte plazako azokako errotondan jarri izan dute beti, eta aurrerantzean txandaka egongo da Olakuan eta aoka ondoan. Hala, uztailearen 9an eta abuztuaren 6an Olakuan egongo da, eta uztailearen 23an eta abuztuaren 20an azokan.

### ETXEKO HONDAKIN ARRISKUTSUAK

Zerbitzu honen bidez etxeetan sortzen diren hondakin arriskutsuak jasotzen dira: aerosolak, bonbilak, inprimatzeko kartutxoak, CD, DVD eta musika zintak, pilak, termometroak, sukaldeko olioak, motore olioak, bateriak, pintura, disolbatzaile eta garbitasuneko produktuak, erradiografiak, fluoreszenteak, aparatu elektroniko txikiak...



### > EGUTEGIA

**Olakuan:** uztaileak 9, abuztuak 6, irailak 3, urriak 1, azaroak 12 eta abenduak 10

**Plazako azokan:** uztaileak 23, abuztuak 20, irailak 17, urriak 15 eta 29, azaroak 26 eta abenduak 24 (goizez).

# HONDAKINEN BULEGOA

## astean bi egunetan zabalduko da



**Astelehen eta asteazkenetan egongo da zabalik, 09:00etatik 13:00era**

Kale Zaharrean dagoen hondakinen informazio bulegoak ordutegi berria du. Aurrerantzean astean bi egunetan eta goizez bakarrik egongo da zabalik: astelehen eta asteazkenetan, 09:00etatik 13:00etara. Telefonoz deitu gara izanez gero: 94325 01 45

# ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO

## gazteentzako dirulaguntza araudia onartu du Udalak behin betiko izaeraz

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren indarrean dago jada herriko gazteek Oñatin etxebizitza alokatzeko Udalak emango dituen dirulaguntzen ordenantza. 18 eta 30 urte arteko gazteek eskatu ahal izango dute laguntza. Eskatzaileak, edo bizikidetzaren unitateko kideetako batek gutxienez, hamar urteko antzinatasuna izan beharko du Oñatiko erroldan laguntza eskuratu ahal izateko.



Hileko alokairu prezioaren %50ari dagokion dirulaguntza emango du Udalak, gehienez 250€ hilean, eskaera bakoitzeko, eta gehienez 12 hilabeteko epealdi baterako. Urriaren 16ra arte aurkeztu ahal izango dira eskaerak udal bulegoetan.

**EGUR-LAN**  
AROSZTEGIA  
LIMABAR S.A.L.  
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
TEL/FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com  
www.egur-lan.es

**smk**  
san miguel kooperatiba  
943 781 217  
kale barria 8 - 20560 oñati  
www.sanmiguel.coop

# Arrano taberna eta elkarteak ez dituzte konfiskatuko

Oñatiko elkartearen helegitea onartu du Gorenak, baina Euskal Herriko beste 101 *herriko* konfiskatzeko agindu du



Idazkari judizialak Arranoko inbentarioa egin zuen unea 2006ko urrian

*Herriko tabernen* 35/02 auzian Auzitegi Nazionalak duela urtebete emandako sententzia berretsi egin du Gorenak ia bere osotasunean, 101 taberna eta elkarte konfiskatzeko agindua emanez. Badirudi, hala ere, Oñatiko Arrano ez dutela itxiko, Gorenak onartu egin baitu Gorgomendi elkarteak aurkeztutako helegitea. Estatu fiskaltzak 2010ean aurkeztu zuen akusazio idatzian ez zen Oñatiko Gorgomendi elkarte aipatzen eta, ondorioz, defentsa egiteko aukera izan ez duenez, bere ondasunen konfiskazioa indargabetzea eskatzen da Gorenaren epaian. Egoera beretsuan daude Arrasateko Irati eta Pasaiaiko Antxeta.

Baina, esan bezala, Hego Euskal Herriko 101 *herriko* (Gipuzkoan 34, Bizkaian 53, Araban 8 eta Nafarroan 7) konfiskatzeko agindua berretsi du Auzitegi Gorenak, ETArek egitura finantziatzeko eta kale borrokarako azpiegitura bezala erabili izan direla egotzita, besteak beste.

Orain Auzitegi Nazionalari dagokio agindua betearaztea. Efe berri agentziak zabaldu duenez, Justizia Ministerioko iturriak aipatuz, herriko tabernak itxi eta enkantean aterako omen dituzte, "epaitutako delituengatik kaltetutako gizartearen mesedetan" erabiltzeko. Defentsako abokatuek 30 eguneko epea dute Auzitegi Konstituzionalera jo ala ez erabakitzeko.

## ARLO INSTITUZIONALA

Bigarren atal bat ere badu 35/02 auziak, "ETArek fronte instituzionalari" dago-kiona, hain zuzen. Epaileen esanetan ETak konfiantzazko kideak jartzen zituen HB, EH eta Batasunan, erakundeetan bere tesiak ezartzeko asmoz. Hala, Gorenak 15 eta 22 hilabete arteko gartzela zigorra eta inhabilitazioa ezarri die ezker abertzaleko hogeiki kideri, erakunde terroristako kide izatea edo hari laguntzea egotzita.

## AURRE EGITEKO DEIA

Eskubide zibil eta politikoen aurkako erasotzat jo du epaia ezker abertzaleak, eta berau salatzen antolatuko diren protestak ekitaldietan parte hartzera deitu du.

Espekulazio eta hipotesi hutsetan oinarritutako epaiketa politiko baten aurrean gaudela salatu du Sortuk; "alternatiba independentista eta ezkertiar gisa etorkizunera begira duen potentziala higatu nahi dute". Auzi hau hasiera hasieratik zentzugabekeria dela salatu du, elkarbizitza esparruak eraiki nahi dituzten herritar guztien aurkako eraso dela. Epaiaketa politikoak bertan behera geratu eta ilegalizazioaren aldia gaingiduz, garai berrietara igarotzeko deia egin du ezker abertzaleak. Ernai gazte erakundeak ere *herrikoak* defendatzera dei egin du.

## MOTZEAN

### Ortuzabala Eguna / uztailak 4

Iazko ekainean hasi ziren otarrak banatzen Ortuzabala kontsumo taldearen etapa berrian, eta lehen urtemuga ospatzeko Ortuzabala Eguna antolatuko dute taldeko ekoizle eta kontsumitzaileek. Larunbat goizean (11:00-13:00) tailer ezberdinak antolatuko dituzte udaletxeko arkupeetan, eta kontsumo taldearen funtzionamenduari buruzko informazioa ere emango da bertan.

### Boga tabernak 20 urte

Hogeiki urte betetzen dituela eta, festa giroa izango da asteburu honetan (uztailak 4-5) Boga tabernan. Larunbatean bazkaria egingo dute taberna aurrean, eta ondoren kontzertuak egongo dira. Igande arratsaldean (16:00) Mus txapelketa jokatu da.

### Mezak Urbiako ermitan

Igande honetan hasiko da meza denboraldia Urbiako ermitan (11:30). Hemendik aurrera uztaila, abuztua eta iraileko igandeetan ospatuko da meza bertan, Roman Azkue buru dela.



**EZKONTZETAN**

**Etxe-Aundi**  
Herria - Jabetza

**2015-2016 urteetan**

Informazio gehiago,


Tel. 943 78 19 56

[www.etxeaundi.com](http://www.etxeaundi.com)



# OLABARRIETAKO SAN KRISTOBAL

> Desagertutako San Kristobal ermita, izen bereko santutxua eta txoferren ermandadeari buruzko liburua idatzi du Jose Ramon Arrazolak



Turismo Bulegoan eta Txokolateixan eskura daiteke liburua 15€-tan


San Kristobal eguna ospatzen da uztailaren 10ean, txofer eta gidarien zaindariaren eguna, eta aukera ona izan daiteke Jose Ramon Arrazolak idatzi duen liburua -*Historias de San Cristobal de Olabarrieta de Oñati*- irakurtzeko. Garai batean auzoan egon zen San Kristobal ermita, izen bereko santutxua eta Oñatiko txoferren ermandadeari buruzko hainbat datu, istorio eta argazki interesgarri bildu ditu bertan.

Betidanik izan duen jakin-mina asetzeaz gain, San Kristobalen jarraitzaileei eta, batez ere, gure artetik joan zirenei omenalditxoa egin nahi izan die Arrazolak.

## DESAGERTUTAKO ERMITA

Olabarrietako San Kristobal ermita noiz jaso zuten ez dakigu, baina bai non zegoen kokatuta. “Gaur egungo santutxuaren gainaldean zegoen, 80 bat metrora, Basauri bezala ezagutzen zen auzunean, Elizalde baserriaren (desagertua) ondoan, Zabalena, Asensionena eta Aldai baserrien kota berean” azaldu digu egileak. Toponomia ere oso argigarria da, *Elizostea* eta *San Kristobal* izeneko orubeak baitaude inguruan.

Ermitaren neurri eta ezaugarriei buruzko datu zehatzak ere ematen ditu liburuan. Udalak 1700ean enkargatutako txosten tekniko baten arabera, 15,80



> Artxiboetan arakatuz, San Kristobal ermita non egon zen gutxi gora behera zehaztu ahal izan du Arrazolak. 1813-1816 artean desagertu zen.



metro luze eta 8,83 metro zabal zituen.

Olabarrietako San Kristobal ermitari buruzko lehen erreferentzia 1498koa da, Iñigo Velez Oñatiko kondeak bertako sakristauari eta serorari ezartzen dien zigor baten harira.

1769an ermita ixtea agindu zuen Calahorrako gotzainak, egoera txarrean zegoelako. Ermitari

lotuta zeuden lursailen salerosketa agirien arabera, Arrazolak uste du 1813-1816 artean bota zutela.

## SANTUTXUA ETA TXOFERREN ERMANDAEDA

Santutxua noiz eraiki zuten ez dakigu. 1785ekoa da Arrazolak aurkitu duen lehen aipamena, Villar Goiti baserriko seme baten heriotzaren harira. Errekan hilda agertu zen, Billargo zubi ondoan, eta santutxura eramán zuten gorpua zirujauak aztertzeke.

Liburuko azken atala Oñatiko txoferren ermandadeari eskainita dago. 1961ean eratu zen 34 bazkiderekin, Txarriduna tabernan egindako bazkari batekin.

Istripu edo ezbeharren bat izanez gero, gidariari edo familiari diruz laguntzeko helburuarekin sortu zen, baina urte gutxitan bete zuten funtzio hori. Era honetako azken laguntza 1966an eman zen.

Denborarekin ermandadearen filosofia aldatuz joan da, baina gaur egun ere San Kristobal eguna ospatzen jarraitzen dute, zaindariaren eta hildako kideen ohorez.

Liburua borobiltzeko argazki album interesgarria bildu du Arrazolak, San Kristobal eguneko ospakizunetako irudi zaharrek. Bertan azaltzen diren pertsona ia guztiak identifikatuta daude eta, gainera, kamioi, kotxe eta motorrei buruzko hainbat datu ematen ditu.

1988an San Kristobalen santutxua goitik behera eraberritu zuten auzotarrek, Udalaren, Parrokiaren, txoferren ermandadearen eta beste herritar batzuren diru-laguntzari esker



## TXOFERREN ZAINDARIA

Sorbaldan umea duela agertzen zaigu San Kristobalen irudia. Tradizioaren arabera Libanon jaio zen eta bizitza gorabeheratsu baten ondoren kristau bihurtu zen.

Gizon indartsua zenez, zubirik gabeko erreka zabal batean pertsonak bizkarrera jaso eta ertz batetik bestera eramaten omen zituen, txanpon batzuen truke. Behin ume bat etorri zitzaion erreka bestaldera eraman zezan; sorbaldan hartu eta erreka erdian zihola, aurrera egin ezinik geratu omen zen gizontzarra, umea oso astuna zelako. Kostata lehorrera iritsi zirenean galdetu zion nola arraio ote zuen hainbesteko pisua, eta mutikoak erantzun zion mundu guztiaren zama zeramala, bera zelako sortzailea. Orduz geroztik Kristoforo izena hartu zuen (*Kristo eramaten duena, grekeraz*). Gure artean Kristobal bihurtu zen, eta oso santu famatua izan da kristandade osoan. Garai batean oinezkoen zaindaria zen, eta XX. mendetik aurrera kamioi, automobil, motor eta bestelako ibilgailuetan dabiltzan zaindaria da.



Udal artxiboa: Andres Arlanzon funtsa



Beheko argazkian Oñati-Brinkola autobusa bedeinkatzen ari da Juan Mugika apaiza.




> **ARGAZKI ALBUMA.** Ehundik gora argazki interesgarri bildu ditu liburuan Arrazolak. Argazkietan agertzen diren pertsona gehienak identifikatuta daude, eta ibilgailuei buruzko informazio zabala ere ematen du. Goikoa 1965eko argazkia da: Pedro Elorza, Carlos Sancho, Andres Kortabarria, Arturo Otero, Segundo Urmeneta, Alberto Igartua, Trino Axpe, Benigno Iñarra, José Tavares eta Juan biain azaltzen dira, San Kristobal egunez.

## GARAGARDO BAT Aloña Mendiren alde

Uztailaren 2tik 4ra egingo da IX. Garagardo Feria plazako karpan

Gaur hasi eta igandera bitartean egingo da Aloña Mendi kirol elkarteak antolatzen duen Garagardo Ferixia ohiko lekuan, plazako jolaslekuan. Ostegun eta ostiralean arratsalde zabalduko dute; larunbatean eta igandean berriz, eguerdian ere zabalik egongo da. Aurten, berritasun moduan, tekila zaporedun garagardo berri bat egongo da aukeran, beste hamar zerbeza motarekin batera. Alkohol barikoak ere egongo dira, botilan. Jateko berriz, ohiko saltxitxa, ukondo eta oilaskoaz gain berritasun moduan saiheskia egongo da aurten, baina ostiralean bakarrik.

Animazio mailan, Patxin eta Potxin pailazoaren ikuskizuna egongo da karpan ostiralean (18:30), Zero Zabor astearen barruan.



## ‘Aurrekomendiko kontuak’ liburuak harrera ona izan du

Oso harrera ona izan du *Artixa* kultur taldeak eta Lizargarate elkarteak elkarlanean argitaratu duen *Aurrekomendiko kontuak* liburuak. Lizargarateko elkarte aurrekomenditarren topalekua izan da beti, eta iaz 50 urte bete zituenez, auzotarren historia, bizimodua eta ohiturak batu dituzte liburu eder honetan. Txokolateixan eta turismo bulegoan eskura daiteke 10€tan.

## Bisita gidatuak turismo bulegoan

Turismo Bulegoak bisita gidatu bereziak eskainiko ditu uztailko asteburu guztietan. Sancti Spiritus unibertsitatara eta Mikel Goiaingeruaren parrokira (12:30 eta 17:00). Astegunetako bisitak erreserbapean 94378 34 53ra deituta.

## ‘Kantugiro’ eta ‘No es país para sosos’ Oñatin

ETB-1en estreinatu berri duten uda parteko ‘Kantugiro’ karaoke saioa Oñatira iritsiko da uztailaren 12an, Trianako jaiekien bat eginez. Parte hartu nahi dutenei aurrez arduradunekin harremanetan jartzea eskatzen zaie whatsapp bidez (626181417) edo emailaz). Bestalde, ‘No es país para sosos’ saioa Oñatin grabatu zuten ekainaren 26an, eta uztailaren 17an emango dute.





## Arrapala egokitu du Udalak kanposantuko gune berrira iristeko

Eskailera-igogailua jarri zuen iaz Udalak, mugikortasun arazoak dituzten pertsonak kanposantuko gune berrira joan ahal izateko. Hala ere, hilerriko goiko gunera iristeko bi eskailera maila igo behar zirenez, bi maila horiek kendu eta arrapala bat egokitu da bertan, aldamenetan eskubandak dituela, irisgarritasun baldintzak bermatzeko.

Arrapala egokitu ahal izateko, ondoan dagoen kargajasangailuaren geralekua, atea eta ateburua egokitu behar izan dituzte. Ugarte eraikuntza enpresak egin ditu lanak 5.086 (+BEZ) eurotan.

## Udalak lau langabetu kontratatuko ditu baso lanetan eta brigadan aritzeko

### Sei hilabeterako egun osoko kontratua egingo die

Lan eskaintzak uztaila hasieran argitaratuko dira Lanbideko web orrian eta hautaketa prozesua uztailean zehar egingo da. Izen ematea Lanbide bitartez egingo da eta, horretarako, Lanbiden lan-eskatzaila gisa alta egoeran egon behar da.

Kontratatuko diren lau langabetuetatik hiru mendi eta baso lanetan ariko dira, auzo-bideen mantenuan, areken garbiketan, belarra mozten edota Aloña aldean, larreetako kardua mozten, nagusiki. Horretarako, basolanetan esperientzia izatea eskatuko da. Laugarrena udal brigadan arituko da, oinarritzko mantenu lanak eta muntaia-desmuntai lanetan. Sei hilabeterako egun osoko kontratua egingo zaie.

## Oñatiko ondare geologikoa ezagutzeko ibilbideak egingo dira abuztuan



Maiatzean aurreratu genuen moduan, GEOAIZKORRI proiektua sortu dute Arrikrutz-Oñatiko kobak, Leintz-Gatzagako Gatzmuseoak eta Zeraingo Burdinaren Mendiak elkarrekin. Gipuzkoa barne-alderako korridore geoturistikoa sortu eta Aizkorri mendilerro inguruko ondare geologikoa balioan jartzea da elkarlan honen helburua. Abuztura begira bi ibilaldi antolatu dituzte. Hilaren 15ean Aitzulo eta Araotzeko arro karstikoan barrena izango da ibilbide geologikoa, eta hilaren 31koa Arantzazu arroan barrena. Informazio eta erreserbak: 943 082 000 / 943 783 453.

## Minnesotako Hezkuntza ministroa Oñatin

Ekainaren 20an Estatu Batuetako Minnesotako Hezkuntza Ministroa buru zuen delegazio bat Oñatin egon zen, Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako sailburuordea eta TKNIKAko (Lanbide Heziketarako Berrikuntza Zentroa) zuzendariarekin baetra. Oñatiko Unibertsitate zaharra eta Arantzazuko santutegia bisitatu ondoren Zumeltzegi jauregian egon ziren. Bazkalostean Mikel Biain alkatearekin izandako solasaldian Oñatiko kulturaren eta historiaren balioak azpimarratu zituen hezkuntza ministroak.



**GARBIKETA  
ADMINISTRAZIOA  
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak

**GAK**  
Garbifasunaren usaina

**653 70 45 47**  
Oñati

**PINTURAS  
URBIA  
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



## Ikasturte amaiera udal euskaltegian

Iritegiko kobara (Arantzazuko arroan) egindako bisitarekin eta baserritarren elkartean egindako afari batekin eman diote amaiera ikasturteari udal euskaltegian. Kobako bisita ekainaren 18an egin zuten, Laura Pereda, euskaltegiko ikaslea eta espeleologia zalea, eta Jabier Azkoaga, Aloña Mendiko espeleologoa, gidari zituztela. Hurrengo egunean egin zuten afaria, Isidro San Migel bertsolariak eta Xabier Gesalagak, euskaltegiko ikasleak biak, prestatuta. Berrogei bat lagun egon ziren afaltzen, eta horietako batzuk daude argazkian. Eskerrik asko espeleologi zaleei, sukaldariei eta ikasle guztiei euskaltegiko irakasleen izenean, eta zorionak euskara ikasteko egindako ahaleginagatik.



## Herriko nagusien omenez

Elena Murgiondo (95 urte) eta Iñaxio Elorza (93) izan ziren jubilatuen eguneko protagonistak. Beraiek jaso zuten ohorezko txapela, zapia eta lora sorta alkatearen eskutik, herriko nagusi guztien ordezkari gisa. Gero 250 lagun bildu ziren bazkarian eguna borobiltzeko.

## Garagaltzako sarituak

Rafa Gereta eta Felix Uribeberriak irabazi dute aurten Garagaltzako Mus tabapelketa, eta itxulapiko apurketan Irati Guridik eraman zuen saria.



### Matrikula

uztailaren 16tik 21era

Oñati gestio  
heziketa

**MGEP**  
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Eskaintza akademikoa	
OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Administrazioa eta Finantzak</li> <li>• Zuzendaritza Idazkaritza</li> <li>• Salmenta Kudeaketa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak</li> <li>• Automatizazioa eta Robotika Industriala</li> <li>• Sareko Informatika Sistemen Administrazioa</li> <li>• Fabrikazio Mekanikoko Diseinua</li> <li>• Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa</li> <li>• Mekatronika Industriala</li> </ul>
<p><a href="http://www.mondragon.edu/ogh">www.mondragon.edu/ogh</a>  <a href="mailto:info.enpresagintza@mondragon.edu">info.enpresagintza@mondragon.edu</a>                      943 71 80 09</p>	<p><a href="http://www.mondragon.edu/gmhz">www.mondragon.edu/gmhz</a>  <a href="mailto:gmhz.mgpe@mondragon.edu">gmhz.mgpe@mondragon.edu</a>                      943 73 97 65</p>

# OÑATIARRAK MUNDUAN



# eta MUNDUA OÑATIN



Agurtzane Basterra  
eta Xabier Derteano  
Zelanda Berria



Izena: Dacheng He  
Adina: 37 urte  
Txinatarra

Kontzeju | 20 | Ipeñik

2012ko abenduaren 14an irten ziren Oñatitik mundua apur bat ezagutzeko asmoz. Zelanda Berrira iritsi nahi zuten, aurretik sei hilabetez herrialde ezberdinak bisitatu ondoren.

Indiara jo zuten aurrena, hango kontrasteek erakarrita. Gero, Tailandia, Laos, Kanbodia, Vietnam eta Indonesiar ere izan dira. Hilabete pasa, gutxi gora behera, herrialde bakoitzean. Tokian tokian deskubritu duten kultura, arkitektura eta gastronomia azpimarratzen dute.

Azken bi urteotan Zelanda Berriko hegoaldeko irla batean bizi dira, Christchurch-en. Hondartza ugari eta mendi dotorez inguratutako hiri kosmopolita da. Xabik plastikoen birziklapen lantegi batean dihardu lanean, eta Agurtzane elektronikaren enpresa bateko marketing laguntzaile. Bizimodu lasaia eta ederra omen da hangoa; eguraldi ona eta ingurune ikaragarri politekin.

Ez da oso ohikoa dena bertan behera utzi eta halako bidaiari luze bati ekitea, baina oso esperientzia aberasgarria eta gomen-dagarria dela diote; "hobe da gauzak egiten saiatuz hanka sartzea, saiatu barik ezer ez egitea baino. Jende asko, kultura berriak eta hizkuntzak ikasteko aukera izan dugu". Bertan jarraituko dute urtebetez, eta gero bidaiatzen jarraitzeko asmoa dute, adikzioa bihurtu baita, eta mundua oso handia delako. Oñatira ere etorriko dira senideak eta lagunak ikustera.

Txinako hegoaldeko Guang Xi herrian sortua, orian dela hiru urte iritsi zen Oñatira. Aurretik Malagan egon zen bospasei urtez, txinatarren biltegi batean lanean. Herrikideen artean ematen zuen egun osoa eta horregatik ez zuen gaztelerarik ikasi.

Aurretik Oñatira etorrita zegoen lehengusu batek deitu zion hona etortzeko, plazako txutxe dendan lana egitera, eta bertan dihardu orduz geroztik. Emaztea eta seme-alaba banarekin etorri zen, eta hirugarrena, hamasei hilabetezko Mikel txikia Oñatin jaio zen.

Oso gustora daude Oñatin. Bizimodu lasaia omen da hemen, bere sorterrikoarekin alderatuz. Herria gustatzen zaie eta jendea oso jatorra omen da, bai nagusiak eta baita gaztetxoak ere. Ez dauka inolako kezurik. Poliki poliki, jendearekin duen hartu-emanari esker, euskara ikasten ere ari da.

Hiru urte darama Txinara joan gabe. Badu gogoia gurasoak eta anai-arrebak ikustera joateko, baina seme txikia pittin bat hazi arte itxoin beharko du. Lan bila etorri zen hona, eta horixe da orain tokatzen dena, lana egitea.

Oñatin hogeitabat txinatar bizi dira gaur egun. Horien artean senideak eta lagunak ere baditu, eta oraingoz oso gustora dago gure artean.

Portu kale. 5  
20560 Oñati

Tel.: 943 78 12 65  
Faxa: 943 78 07 85

## CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

**Etxe eta lokalen gestio orokorrak**

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 beheka • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

# ZERO ZABOR ASTEA

Zaborraren kudeaketa egokian sakontzeko asmoz, Oñati Zero Zabor Taldeak eta Udalak elkarlanean aurten ere Zero Zabor Astea antolatu dugu. Garbi daukagu helburuak lortzeko bidea oraindik luzea dela, atez ateko zabor bilketa selektiboak norabide onean jartzen gaitu, baina asko daukagu ikasteko, egiteko eta hobetzeko zaborraren kudeaketa integrean.

Bestalde, badirudi Gipuzkoako Foru Aldundiak politika zaharkituetara itzultzeko ahaleginak egingo dituela, hau da, zaborrak erretzeko errauskailua Zubietan eraikitzeko ahaleginak egingo ditu. Honen aurrean oñatiar gehienok beste bide bat landu nahi dugu, ingurumena zaindu eta etorkizun garbiago baten alde lan egingo duen politika aurrerakoiak eta ekintza konprometituak jorratu nahi ditugu.

Horregatik diogu zaborraren kudeaketa teknologiarik aurreratuenak hondakinak frakzio desberdinetan sailkatzeko



norbanakoaren bi eskuak direla. Ingurumenean, ekonomian zein osasunean ondorio positiboak dituen ekintza xume hau arlo guztietara zabaldu behar dugu: etxeko sukaldera, lantokira, aisialdira, jaietara ...

Norbanakoen ardura eta gizartearen inplikazioa eskatzen dugu bide honetan aurrera egiteko. Eta zer esanik ez, administrazio desberdinen (gobernuak, aldundiak, udalak...) gidaritzza eta lege berrien onarpena hondakin kopurua murrizteko eta hondakin guztiak birziklagarri izateko. Bestalde, hondakinak birziklatzeko baliabide eta azpiegitura egokiak eraiki behar dira. Guk norabide horretan lanean jarraituko dugu eta horregatik aurkeztu nahi dugu aurtengo egitaraua herritarrok parte har dezagun.

*Oñatiko Zero Zabor*

**“Zaborraren kudeaketa teknologiarik aurreratuenak hondakinak frakzio desberdinetan sailkatzeko norbanakoaren bi eskuak dira”**

## EGITARAUA

- **UZTAILAK 3, OSTIRALA:** Patxin eta Potxin pailazoak “Birziklatzea erraza da” antzerkia. 18:30ean Aloña Mendiko garagardo festako karpan.
- **UZTAILAK 4, LARUNBATA:** Gasteizko Gardelegi zaborteia ezagutzeko bisita. Goizeko 10etan Korreoseko geltokian autobusa doan izango da. Apuntatzeko: nekazaritza@oinati.eus / 943780411.
- **UZTAILAK 9, OSTEGUNA:** “Tapped” pelikularen emanaldia; botilaratutako uraren industriaren eraginak. 19:30ean zine aretoan.
- **UZTAILAK 12, IGANDEA:** Araotzeko Leuzarra inguruan dagoen zabortege zaharraren garbiketa auzolanean. Ondoren bazkaria Araotzeko saloian. Goizeko 9etan plazan. Apuntatzeko: nekazaritza@oinati.eus / 943780411.



**ARAOTZECO LEUZARRA  
INGURUAN DAGOEN  
ZABORTEGI  
ZAHARRAREN  
GARBIKETA EGINGO DA  
AUZOLANEAN  
UZTAILAREN 12AN**

## ONTZIRATU ZAITEZ kanpaina



Uztailaren 13tik 28ra Ontziratu Zaitetz kanpaina jarriko dute abian Udalak eta Kutxa Ekoguneak herriko harategi eta arraindegietan. Plastiko eta paperean biltzen ibili gabe, etxetik ontzi berrerabilgarriekin joatea sustatu nahi da. Ingurumena babesteaz gain, hileroko zozketan erosketa-saria irabazteko aukera egongo da.

**ARRI**

Industria Hornidurak  
Burdindegia

Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18  
suministrosarri@hotmail.com

*Orain Oñatiarren  
zerbitzura!*



**MODA BEREZIA**

Kale Barria, 12  
Tel. Faxe: 943 71 62 40

## Kontzejupetik



**ARGITARATZAILEA:** Oñatiko Udala

**ZUZENDARIA:** Iñigo Arregi

**PUBLIZITATEA:** Aratz Losada

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Aratz Losada

**KOLABORATZAILEAK:** Jerardo Elortza  
eta Udal Euskaltegia

**INPRIMATEGIA:** Gertu

**Tirada:** 5.500 ale

**Lege gordailua:** SS-357/91

**Posta-e:** kontzejupetik@onati.eus

**Publizitatea:** publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Azaleko argazkia: Ekain Muñoz (Ilunpetan)

### GUTUNAK

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariako erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

## Gizona sukaldean sartzen denekoa

Jone Larrañaga

Noski, Euskal Herrian ez da gatzik falta eta gutxiago Euskal sukaldaritzan. Begi bistakoa da gure *chef*-ek duten talentua; bai, begien bistakoa. Izan ere, telebistan uneoro ikusi genitzake sukaldari hauek jantzi zuriz sekulako deliziak prestatzen. Telebistari so, ohartzen al gara ordea, gure etxeko sukaldean nor dagoen? Eta zertan dabilen?

Ez da inondik inora genetan dugulako, ezta ikasiak jaiotzen garelako, baina tradizionalki emakumeoi egokitu izan zaizkigu sukaldeko lanak egitea; egun bat bai eta bestea ere bai etxeko guztientzat janaria erosi, prestatu eta hurrengo otordurako guztia txukun

uztea. Hala ere, ukaezina da Euskal Herrian gizonetzkoek ere badakitela sukaldatzen, eta ez diegu meriturik kenduko. Baina jarri al gara pentsatzen gure inguruan noiz eta nola sukaldatzen duten gizonak?

Elkarte gastronomikoetan kasu, orain gutxiarte haientzat bakarrik zeuden atea zabalik. Telebistan, sariak jasotzen edo izen oneko jatetxetan aurkitzen direnak ere gizonak dira, kasu gehienetan; osagairik sekula falta ez zaiela, sartagin eta kazuela pilaketa gabe, orduaren kontra korrika eta prisaka ibili barik, etxeko txikien eta ez hain txikien purrustaden faltan eta haien *fan*-en esker on eta zorion artean sukaldatzea beste kontu bat da. Sukaldaritzan sukaldariari artista deritza, sukaldatzearen dirutza eta prestigioa irabazten dute eta gizonak nagusitzen dira.

Bi sukaldari eredu artek amildegia

agerikoa da, gure herrian gizon eta emakumeon artean dagoenaren adierazle. Bestela, nola ulertu gure amonen errezetak hartu, etxetik atera eta gizonak kutxare eragiten hasita, sukaldaritzan sortu izana. Zeren emakumeok egin izan duguna eta egiten jarraitzen duguna, ez da sukaldaritzan; pertsona errespetagarritzat hartu nahi bagaituzte bete beharreko baldintza baizik.

## 'Nepal lagunduz' taldearen izenean esker onez

Urko Egaña

'Nepal lagunduz' ekimenaren bultzatzaileok eskerrak eman nahi dizkiegu herritarrei, ekainean zehar antolatu diren ekitaldietan parte hartzeagatik, eta

# Jon Ander Arzuaga

Argazkiak

- Laborategi edo momentuko argazkien errebelatua.
- Estudio eta kaleko argazki sesioak.
- Ezkontza, Jaunartze eta Batailoak.
- Argazki zaharren berrizketak.
- Karneterako Argazkiak.
- Albumak eta Markoak.
- Kopia Vhs-tik Dvd-ra.

Oñati - Atzeko kalea, 5

Tel.: 943782481

aurrerantzean sortuko diren ekintzetara biltzeko deia luzatzen diegu. Gogoratu, oraindik ikusgai dagoela (uztailaren 6ra arte) turismo bulegoan Felipe Uriarteren erakusketa. Kathmandu eta Himalaiako argazki ederrak daude ikusgai eta erosgai, Nepalera dirua batzea baita helburua.

## Mila esker!!

*Leire Barbero eta Isma Zubia,  
Elkar Heziko komunikazio taldea*

Ezta makala izan egun osoko egitarau partehartzaille eta dinamikua prestaitteko urtian zihar guraso-, irakasle-, bestelako lankide- eta ikasle-talde zabalak egin dozuein lan izugarria, kreatibua, askotarikua, bizixa..., senper egindda ibilli zarai. Mila esker benetan zuen konpromisu eta inplikaziñuagatik!

Ez gutxiago umoretsu eta animoso jaixaldixan parte hartu dozuein guztioiri, haur, gazte eta helduoiri, ederra deiadarrari emundako erantzuna, goizetik gabea arte 600 pertsona han-hemenka elkarregaz gozatuaz!

Eskerrak sustatzaile eta hornitzaile guztioiri baita, zuen laguntza eta babes ekonomiko barik ezinezkoa izango zalako ospakizun eder hau egittia!

Elkar-lana, -ulertu, -berba, -jolas, -salto, -asma, -barre, -dantza, -kantu, jan-edan, -hunkittu, baita emoziozko malkuak elkar atera be beste belaunaldi batek Batxillergua akabo eta hegan zela egingo dauen sentittuaz ... Elkar Heziz azken batian, sekula baino Hezixago!

Bejondeizuela danoiri eta hurrengo ikasturtian Elkarrago eta Hazixago! Gu be bagoiaz!

*Guraso, ikasle, irakasle  
denon esku ta ahotsak  
Elkar Hezi ikastetxeagatik  
gaindituz gure akatsak  
guztiz ahaztuta aspaldi zeuden  
gure jatorrizko lotsak  
Zuen ekinak gauzatzen ditu  
ezinak ziren ametsak!*

Doinua: *Blowing in the wind*

## Susana Arregi gogoan

'Irunberri oroitzuz' ekimenaren barruan, orain dela 25 urteko gertaerak gogoratzeke antolatutako erakusketako olerkietako bat ekarri dugu orriotara.

*Kanpizelaiko ibar zabalean,  
Goribarreko erreka ertzean,  
piztutako begien argitasuna  
itxungi, itzali zen, zuten  
Irati ibaiaren arroila estuan,  
gaztaroko ametsak zapuztuz,  
era anker eta ilunean.*

Jerardo Elortza

## Zuzenketa

Ekaineko zenbakian akats bat egin genuen Juankar Olaetaren iritzi artikuluan. Nahi gabe, 'infernura' hitza azaldu zen izenburuan, behar ez zuenean. 'Ekonomia, hezkuntza, sektak, heretikoak eta metaforak' zen izenburu zuzena. Barkamena sinatzaileari.

## 📷 HILEKO IRUDIA

Argazkia: Xabier Rezabal



Iruñeko Gaztelu plaza, txupinaren momentuan. San Fermin jaiak badatoz beste urtebez.

## KULTURAREN BIDETIK

**H**erri batean bermatzen den jakintza guztiak du kultura oinarritzat. Arlo ugarian ikus genezake kulturak duen dimentsioa: herri kultura, enpresa kultura, hezkuntza eta kultura... zer onartzen dugun kulturaren abaniko luze honen barruan, nik dakidanez behintzat, kulturak librea izan behar du beti, aratza, etengabe erreproduzitzen dena.

Oñatin ere, ezagun ditugu azken urteetan herri ekimenetatik garatu diren kultura gune berriak, Eltzia esateko. Herriarron sormena garatu eta bul-tzatzeaz bat, ekintzailetasunaren eredu bihurtu da, jakintza berrien aterpe, ilusioen sortzaile,

**Amaia Aranzeta**



ametsen bitakora luze eta elkarlanaren testigu.

Gaurko hezkuntza ereduak ere, ikaslearen autonomia lantzea du helburu, autonomia eta ikasten ikasiz kompetentziak bermatuz kulturaren izenean, gerora begira, kultura "hobea" egin dezagun. Ordea, kultura ezin daiteke kualitatiboki alderatu, ez baitago kultura txarrik edo kultura onik. Dena da kultura, antzinatik gaur egunerarte eraikiz joan garen bidea; aldiz, kulturak bai eraiki ditzake herritar hobek, herriak kulturizatu, estaturik gabeko nazioak sortu; progresuak jan ohi

dizkion espazioak berrantolatuz, teknologiaren gain hartzea murriztuz, liburugietan paperean idatzita dauden liburuak elkarbanatzen jarraituz.

Ez dut aditzera eman nahi, progresua onura ez denik. Hala ere, teknologia gehiegikeriaz erabiltzen dugula ez da inolako berririk, telefono mugikorrek eredu, ordenagailu, iPad, Tablet eta beste hainbat barne. Baina ez dezagun ahantzi, teknologia erdibide bat besterik ez dela eta, kultura, teknifikazio masibo honetatik banandu beharra dagoela bere originaltasunean manifestatzen jarraitu dezan. Hau horrela, bejondeizuela Oñati eta Eltzia, progresuari uko egin gabe, kulturaren aztarna, tradizioa eta gardentasuna aditzera eman baituzue!



## BILUZTU

**X**XI. mendeko gizarte zibilizatu eta aurreratu honetan pertsona jantziek egiten dute aurrera. Guztiok izan nahi dugu pertsona heldu eta guztiz jantziak. Lanerako jantziak, lagunarterako jantziak, inork zalantzan jarriko ez duen goitik beherainoko pertsonalitateaz jantziak. Guk gurea gordez, besteen aurrean jantzita ageri nahi dugu, luxuzko traje metaforiko pertsonalizatua da arrakastatsuen, inork inoiz erantsi ezingo diguna. Eta inork gure esmokin pertsonala erantsiko badu horretarako hainbat urtez ikasi duen psikologoa izan dadila.

Psikologoarena joan eta bizitzak inposatzen dizkigun kargak leuntzeko tresnak

**Xabier Pascual**



eskuratzea batzuetan beharrezkoa eta ezinbestekoa bada ere, askotan jantzi horien gehiegizko pisua litzateke arazoa. Biluztu beharra daukagu. Batzuetan inposatuta eta beste batzuetan guk gure arrakasta egarriaren eraginez gaineratu ditugun jantzi horietaz ahaztu eta munduaren aurrean biluzik ageri. Garen modukoak, irribarre bat baino, infartu batek eragindako kalteak diruditen keinuak eragotziz. Gizarteari, lagunei, bizilagunei, lankideei eta gu geuri mezu bat diegu zabaltzeko, axola diegulako eta axola gaituztelako.

Ezkutuan negar egiten badugu ez du inork gure kezken berri izango eta asimi-

latuta dugun arren inork ez du sinesten inor beti zorionsua denik. Ez dut esaten gure sentimendu guztiak uneoro lau haizeetara zabaldu behar direnik, baina gaur egun sentimenduen adierazpena ahulezia ikur bihurtu da eta hori arimak biluzteari diogun beldurraren eragina da. Maitasuna edo minutu batzuetako atentzioa oihuka eskatzen duten arimez bete da gure ingurua eta gutako asko gara edo izan gara bizitzako uneraren batean arima horien parte.

Entzun dezagun beraz besteek esateko dutena, har ditzagun lagun artean garga gardo gehiago, besarkatu gaitetzen, begiratu gaitetzen begietara eta biluztu, lehendabizi gure arimak eta gero bakoitzak nahi duena biluztu dezala. Izan gaitetzen pertsonak animaliak ere bagarela ahaztu barik, eta alderantziz.



## KORPUS JAIA ETA TRADIZIOA

L atineko 'traditio onis'-etik. "Gursoek seme-alabei transmitituta, herri batek gordetzen duen ohitura..."; "Belaunaldiz belaunaldi transmititzen den ohitura, erritua...". Horiek dira TRADIZIO hitzaren definizioetako batzuk.

2015eko ekainaren 7a. Bi lagun arteko elkarrizketa Oñatiko plazan. Zer iruditzen zaizu Korpus Jaia? Galdera horri erantzuteko, hausnarketa laburra baina sakona egin genuen.

Gure ustez, ospakizun erlijioso/zibila da, Elizak ez ezik, udaleko zinegotzi batzuek eta herritar askok parte hartzen dutelarik.

XV. mendean (1422 aldera) sortutako ospakizuna izanik, eten barik ospatu da gaur arte, belaunaldiz belaunaldiz man-

### Pernando Mendiguren

'Perratzaile'



tendu eta zaindu delarik.

Gure ustez indartu egin beharko litzateke ospakizuna bere ikusgarritasunean, kendu orde, herriko zenbait sektoretan aipatu den moduan. Horretan ados geunden.

Herritar sektore zabal batek oso berea sentitzen du jaia, kristauen kolektibitateaz gain, jakina.

Ez dago ezer antzekorik gure inguru zabalean. Espainian, Toledon ospatzen dute antzeko jaia. Eta Europan, besteak beste, Brujas hirian (Belgika) ospatzen dute solemnitate handiz.

Gure ustez, tradizioak markatzen du herri baten izaera. Eta inportantea bada ere ikusmolde berriei atea zabaltzea, inportantea da, baita ere, herriaren zati baten jokamoldea islatuta egotea, TRA-

DIZIOAK izateko modua sortzen baitu.

Korpus jaia kendu ezker, gure ustez txantxiarroi gure izatearen parte bat faltako litzaziguke. Dantzariak kaleetan barrena hegan ikusteak sentipen hori bizi-rik mantentzen du.

Are gehiago, gure ustez errespetu handiagoa beharko litzateke plazako ekitaldi nagusian. Isiltasun ia erabatekoa gorde beharko litzateke. Adibidez, barraketako musika kendu egiten dute ekitaldi horrek dirauen bitartean, Udalak hala eskatuta orain dela urte batzuk. Herriko instantzia ezberdinetan aztertu beharrezko gaia dela uste dugu.

Horregatik, gure ustez, Korpus jaia mantendu ez ezik, indartu egin beharko litzateke herriak bere esku dituen bitarteko guztiekin. Guk laguntzen jarraituko dugu, gure parte hartze erritualaren bidez.

**ETXEBIZITZA BERRIAK  
OÑATI ERDIAN**

Maiatzaren 1 Plaza,  
2. zenbakian

3 logeletako  
etxebizitza zabalak

Informazioa eta Salmenta:  
**Larrain S.L.**  
Tel.: 943 21 33 88  
[www.moyua.com](http://www.moyua.com)

grupo **MOYUA** **Larrain**



www.euskalfoto.es

## Uztailaren 18an jokatuko da pinoi finkodun IV. Kriteriuma

**G**abaz jokatzen da, herriguneko kale estuetan, frenorik gabeko pinoi finkodun bizikletetan... osagarri asko ditu Kantoikrit lasterketak berezia izateko. Horregatik sortzen du halako ikusmina. Antolakuntzako kide eta orain arteko edizioetan protagonista izan den Xabi Altuberekin hitz egin dugu. Aurreneko bi probak irabazi zituen, eta iaz bertan behera utzi behar izan zuen gupila zulatuta, lasterketa buruan zihoala.

**Iazko arantza ateratzeko gogoz?**  
Iazkoa irabaztea oso zaila izango zen, Timothe Ceresa frantziarra oso indartsu zegoelako. Bigarren, beharbada bai, baina irabazi...

Aurten, egia esan, fisikoki ez nago onenean. Lesio bat izan dut belaunean, eta orain dela gutxi hasi naiz berriro ibiltzen. Nahiko nuke parte hartu, baina oraindik ez dakit. Bestela antolakuntza lanetan ibiliko naiz, nahikoa lan dago eta.

**Prestaketa berezia egiten al duzue proba honetarako?**

Berezia ez, baina bai pittin bat espezifikoa. Ez dago entrenamendu luzerik egin beharrik, karrerak hiru ordulaurren irauten duelako, asko jota. Gehiago izaten dira entrenamendu motzak, indarra lantzekoak, pinoi bajuetan ibiliz, serie motzak eginenez, esprintak eta intentsitatea lantzeko...



**ZIRKUITO AIAZKO BERBERA IZANGO DA, BAINA AURTEN 16 BUELTA IZANGO DIRA, IAZ BAINO 3 GEHIAGO. DANERA 25 KILOMETRO**

**Oñatikoaz gain, piñoi finkoko beste karrera batzuetan parte hartzen al duzu?**

Gijonen eta Bartzelonan egoten dira era honetako karrerak, eta urtero joaten gara. Iaz Donostian ere antolatu zuten, eta aurten Pontevedra, Toledo eta Valentzian ere egin dira, baina ez gara joan. Gero eta karrera gehiago ari dira sortzen eta, badirudi, goraka doan modalitatea dela.

**Zein da piñoi finkodun bizikletaren xarma?**

Dibertigarriagoa da. Freno barik joateak kezka puntu bat sortzen du, eta denbora guztian oso adi ibili behar duzu, pentsatuz, kalkulatu... eta horrek entrenigarriagoa egiten du.



Kantokrit taldeko kideak

“Oñatiko zirkuitoa berezia da. Kanpotik etortzen diren guztiak errepikatze gogoz joaten dira. Hemengo giroa ikusita, Tourra ematen duela esaten dute”

**XABIER ALTUBE** | Lehiakide eta antolatzailea

**Teknika ala indarra, zer da inportanteagoa?**

Oñatiko karreraren teknikak inportantzia handia dauka, kale estuak direlako eta kurba edo bihurtune asko daukelako. Berezia da Oñatikoa.

Hemendik kanpora egiten direnak kale zabaletan edo industria poligonetan jokatzen dira, eta indarreko probak izaten dira gehiago.

Oñatikoan berriz frenada inportanteak daude eta garrantzitsua da teknika ona edukitzea; frenatzeko ere indarra egin behar da eta, beraz, justua baino ez da frenatu behar, indar askorik ez galtzeko.

**Berezia da, beraz, Oñatiko zirkuitoa?**

Bai, duda barik. Jendea kezka apur batekin etorzen da, adokina dagoelako eta kale estuak direlako, baina etorri diren guztiak errepikatze gogoz joan dira. Askok gustatu zaie.

**Zein dira puntu klabeak?**

Santa Marinaran goitik behe-ra hasi, Portuko kurba eta San Anton kaleko tartea da exigenteena teknika aldetik. Zirkuitoaren beste erdia indarrean egitekoa da

Gogoan dut batek esaten zuela: “ez nekixen Atzeko Kalen hainbesteko erripia eguenik piñoi finkoko bizikletia hartu arte!” Igartzen da, bai, indarrez ondo ez bazoaz.

**Kale bazterretan hainbeste jende ikustea ere polita izango da, ezta?**

Duda barik. Karrerak harre-ra oso ona izan du eta horrek indarra ematen digu antolatzaileoi aurrera jarraitzeko.

Karrerako unean berriz, izugarria izaten da. Kanpotik etortzen den jendeak Tourra ematen duela esaten du.

**Segurtasunak kezkatzen al zaituzte?**

Beti dago arrisku puntu bat, baina antolakuntza mailan urtetik urtera saiatzen gara segurtasun maila igotzen.

## MOTZEAN

### Aloña Mendiko igerilariek hiru domina lortu dituzte Euskadiko txapelketan

Euskal Herriko txapelketak jokatu ziren joan den asteburuan nagusien mailan. Aloña Mendiko 9 lagunek parte hartu zuten eta zilarrezko hiru domina ekarri zituzten: Nerea Diazek bi lortu zituen 50 eta 200 Bizkarrean, eta Xabier Urbinak bat 50 Bizkarrean.



#### ESPAINIAKO TXAPELKETA ETA ITSAS ZEHARKALDIK

Aloña Mendiko bi igerilarik, Espainiako txapelketarako minimak lortu dituzte. Nerea Diazek 50 Krol eta 100-200 Bizkarrean, eta Eric Ugartek 50-100 Krolean.

Bestalde Xabier Gordoak Aloña Mendiko igerilaria hirugarren sailkatu zen Santutzi eta Bilbo arteko (13,2 km.) itsas zeharkaldian, 3:12:13 denborarekin.

### Asteburuko mendi irteera Pirineotara


Asteburuko (uztailak 18-19) irteera antolatu du Aloña Mendik uztaileko. Lehenengo egunean Otsogorrigaine (1922m.) igoko dute, eta hurrengo egunean Auñamendi-Anie (2.504m.). La Pierre Saint Martineko aterpetxe batean igaroko dute gaua, bertan afaldu eta gosalduz. Izen-ematea, uztailearen 7tik 14ra. Bazkideak 60€, ez bazkideak 70€ eta langabetuak 50€. Derrigorrezkoa da federatuta egotea.

### Urbom suediarren erakustaldia Torreauson

Inguruan oporretan zegoela aprobetxatuz hurbildu zen Torreausoko lasterketara Fredrik Urbom suediarra, eta sekulako erakustaldia eman zuen, erlojua 23:48an geratuz. Suediako selekzioarekin ibilitakoa dela aitortu zuen lasterketa amaieran. Beñat Arnaizek (25:19) eta Sergio Gartziak (32:35) osatu zuten podiuma.

Emakumezkoetan ere lehia bizia izan zen bi oñatiarren artean. Azkenean Edurne Elkororibe (32:35) nagusitu zen, Miren Josu Bikuña (33:04) eta Oihana Goenagaren (37:44) aurretik. Danera 70 korrikalarik parte hartu zuten.





>>>> Argazkilari bezala maisua dugu Jon Arzuaga, Goya sariak eta nazioarteko hainbat biltzarretan jasotako errekonozimenduak erakusten duten moduan, baina argazkiak zaharberritzen ere benetako artista da, denboraren poderioz hondatutako argazkiei jatorrizko itxura emateko gai delarik ondoko argazkietan ikusten den moduan.

# Zaharberritzearen artea

## Noiz hasi zinen argazkiak zaharberritzen?

Duela 44 urte hasi nintzen argazkilaritzan eta hasieratik egin izan ditut erreproduktzioak. Oso lan interesgarria iruditu izan zait beti, azken batean gure historiako zati bat berreskuratzen baita argazkien bidez.

Hasiera hartan anilinekin (emultsio fotografikoak) lan egin behar izaten genuen negatiboetan. Kontu handiz egin beharreko lana zen, eskuak ihes eginez gero ez zegoelako atzera bueltarik. Gaur teknologia digitalak aukera asko ematen ditu, garai batean pentsaezinak zirenak

Beti gustatu izan zait asko argazkiak zaharberritzea. Oso interesgarria iruditzen zait. Gainera, oso esker onekoa da; hondatuta zegoen argazki bat



Jon Arzuaga, argazkilaria

nola gelditzen den ikusteko asko betetzen zaitu eta, gainera, jendeak asko eskertzen du.

**Photoshop eta antzerako tresnak edonoren eskura daude, baina ez da bakarrik teknologia kontua, ezta?**

Teknologia digitalean Euro-

**“ Zaharberritze lana ez da izaten errentagarria, baina bai esker onekoa; azken batean gure historiako parte bat berreskuratzen dugu argazkien bidez**

pan den aditurik onenetakoa ezagutzeko aukera izan nuen, eta adibide hau jartzen zidan: hau Bonolotoa bezalakoa da; 49 zenbaki besterik ez daude, baina konbinatzeko aukerak ikaragarriak dira.

Musikarekin ere konpara dezakezu; hau da, musika tresna guztietan daukazazu

nota guztiak, baina gero, zure teknikaren arabera emaitza izango da edo birtuoso edo narrasagoa.

Garbi dagoena da, tresna digitalek abantaila asko dituztela; zerbait gaizki eginez gero, atzera buelta egiteko aukera dago, lehen ez bezala. Dena da garbiagoa eta errazagoa.

## Zein irizpide jarraitzen duzu zaharberritzeak egitean?

Zorionez edo zoritxarrez, mundu digitalean ez dago mugarik. Nire iritziz, askotan abusatu egiten da Photoshop-arekin. Nire helburua izaten da ahalik eta naturalen gera dadila argazkia, eta gure eskua ahalik eta gutxien nabaritu dadila.

## Zenbat denbora eramaten du argazki bat zaharberritzeak?



Argazkiaren egoeraren araber, baina, normalean, ordu asko. Lan hau ez da errentagarria izaten, baina zaletasunagatik egiten duzu, gustatzen zaizulako. Lan kreatiboa da, eta, esan bezala, asko betetzen nau argazki bat zaharberitu ondoren zela geratu den ikusteak.

**Zer izaten da zailena? Ba al dago konpondu ezinezkorik?** Argazkigintza digitalean ez dagoela ezinezkorik, esaten da, baina gauza batzuk oso zailak izaten dira. Adibidez begien ingurua hondatuta baldin badago eta ez bada ondo ikusten pertsonaren espresioa, asko zailtzen du

zaharberitze lana, ez baduzu pertsona hori ezagutu. Beharrezkoa da erreferentzia bat edukitzea, espresioa behar bezala jaso eta ahalik eta naturalen gera dadin.

#### Orain semeak jarraituko du zure lana, ezta?

Bai, pena ematen zidan 44 urte hauetan ikasitako guztia bertan behera geratzea, eta asko poztu nintzen Jon Ander semeak ofizioarekin jarraitu nahi zuela esan zidanean. Oso ondo prestatu da, eta niretako gozamina izan da ikaste prozesuan berari laguntzea. Gainera, behar duenean hortxe egongo naiz laguntzeko prest.

## KULTUR BERRIAK

### Udako ordutegia udal liburutegian

**I**ndarrean da jada udako ordutegia udal liburutegian. Hala, helduen liburutegia astelehenetik ostiralera zabalzen da goizez (10:00-13:00) eta arratsaldez (16:30-20:00). Abuztuan goizez bakarrik egongo da zabalik (09:30-13:30). Larunbatetan itxita egongo da, bai uztailean eta baita abuztuan ere.

#### HAURREN LIBURUTEGIA

Haurren liburutegian ekainaren 22an sartu zen indarrean udako ordutegia. Uztailearen 30era arte goizez bakarrik (10:00-13:00) egongo da zabalik. Abuztuan itxita. Gogoratu, hala ere, helduen liburutegian txoko pare bat egokitu dituztela umeen liburu eta DVDekin. Beraz, uztaileko arratsaldeetan eta abuztuan haurren liburutegia itxita badago ere, umeek aukera dutela dokumentuak maileguan eramateko edo bertan irakurtzeko

### Poesia liburua argitaratu du Markuletak

*Denbora bere lekura* (Erein) izeneko poesia liburua plazaratu du Gerardo Markuleta idazle oñatiarrak. Lehengo ataleko olerkietan Oñatin bizi izan zuen gaztaro eta nerabezaroko oroitzapenak bildu ditu. Gaur egun Gasteizen bizi da Markuleta, eta bere bosgarren poesia liburua da honakoa.



### Gipuzkoako bertsolari txapelketarako sailkatu da Maider Arregi



Kanporaketa saioak amaituta, Maider Arregi da irailaren 20an hasiko den Gipuzkoako txapelketarako sailkatu den oñatiar bakarra, bi saioetan batutako 541 puntuei esker. Andoni Goitia sailkatzetik gertu geratu da, 521,5 puntuarekin. anera 30 bertsolarik egin dute aurrera, eta duela lau urteko txapelketan sailkatze zuzena lortu zuten 13 bertsolariekin bat egingo dute.

**ANE MERTZERIA**

- Josteko zorak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

**Cartonajes Arregui, S.A.**

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Oñatiri buruzko

# JAKINGARRIAK

## > Kurtzetxo, Kurtzebaltz eta Altzibargo kurtzea

**G**arai batean Oñatiko herriguneko mugak adierazten zituzten gurutzeak dira. XVI. mendeko lehen erdirako agertzen dira hiruren aipamenak.

Oñati jaureria izan zen, eta ondoren konterria, eta ez zen sekula harresiz inguratuta egon, Gipuzkoako hiri-bildu gehienak bezala. Oñatin aipatutako hiru kurtzeek finkatzen zituzten herriko mugak.

Oñati inguruko herriein lotzen zuten kaltzaden abiapuntuan zeuden gurutzeak. Bat Altzibar inguruan zegoen, Arrikruz eta San Juan Artiatik Araba aldera zihoan bidearen hasieran. Santutxu bat ere ba omen zen bertan, Altzibar baseritik Lekunberriraino zegoen pasealekuaren amaieran. XIX. mende hasiera arte behintzat zutik iraun zuten biek, baina gizaldi horretan desagertu ziren hirigintza antolamendu berriaren ondorioz.

Beste gurutze bat, Kalebarrikoa bezala ezagutzen zena, Goierri alderako bidearen abiapuntuan zegoen, eta gaur egun ere zutik dirau, Bidaurretako biribilgunearen erdian. Antzina Kurtzebide kalearen hasieran omen zegoen, horixe baitzen herriko sarrera Legazpi



> Garai batean Oñatiko herriguneko mugak markatzen zituzten gurutzeak dira. Oñati inguruko herriein lotzen zuten kaltzaden abiapuntuan zeuden.

aldetik zetorrenarentzat. Kurtzebaltz ere deitzen zioten kurtze honi, nonbait bere ondoan jarri ohi zelako gaizkileak zigortzeko pikota, baina hori ez dago dokumentatuta. Iñaki Zumaldek *Historia de Oñate* liburuan dioenez, Oñatin urka edo pikota erabiltzen zen azken zigorra burutzeko, eta Jau-mendin jartzen zen urkamendia.

Hirugarren kurtzea herriko beste muturrean zegoen, Debagoienerruntz abiatzen zen kaltzadaren hasieran, gaur egun Kurtzetxoko ermita dagoen lekuan hain zuzen. 1542koa da lehen aipamena. Kurtzebaltzekoaren antzeko kurtzea eta santutxua omen zeuden bertan. Oso maitea zen herritarren artean, XVI eta XVII. mendeko testamentu askotan agertzen baitira santutxuaren mantenturako dohaintzak, Zumaldek jasotzen duenez.

1752an eta 1884an ere berritze lan inportanteak egin ziren santutxuan, eta azkenekoz 1987an eraberritu zuten parrokiaren eta auzotarren ekimenez.

Ez dakiguna da, zer gertatu zen bertako kurtzearekin. Kurtze-burua Santxolopeztegiko Bakuebarrena gunean dago, metro beteko zutabe baten gainean.



**ARANBURU  
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK**

**LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK**

**S distira**  
estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solariuma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa
- ...

San Lorentzo 4 behea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI  
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

## HISTORIA TXATALAK

## Oñatik hiru alkate batera zituenekoa

> Herriko alkatea aukeratu berri dugun honetan, historian atzera jo dugu Oñatik hiru alkate izaten zituen garaietara. Alde batetik kondeak izendatutako alkate **nagusia** zegoen, bestetik, herriak aukeratutako **ohiko** alkatea eta, azkenik, **Ermandadekoa**.

XV. mende erdira arte kondeak izendatzen zuen ohiko alkatea ere, baina 1447tik aurrera Gebaratarrek herriari eman zioten hautatzeko eskumena, herritarren askatasun egarria asetzeko helburuarekin, Iñaki Zumaldek *Historia de Oñate* liburuan dioenez. Hortik aurrera, 1745era arte, herrian zeuden bi leinuen artean aukeratzeko zuten alkatea txandaka.

Hala ere, kondeak oniritzia eman behar izaten zuen, eta horrek hainbat auzi eragin zituen, Gebarako jaunek '*creo y pongo*' hitzak erabiltzen zituelako, alkatea berak jartzen zuela aditzera emanez, eta herritarrentzat iraingarria gertatzen ziren hitzok.

1783ra arte udaletxerik egon ezenez, kontzejuaren batzarrak alkatearen etxean egiten ziren. Kontzejuko kide izateko, noble familiakoa eta diruduna izan beharra zegoen.

Ermandadeko alkateari buruz ez dago informazio askorik. Zumaldek dio polizia-buru moduko bat zela, herritik kanpora gertatzen ziren (leinuen artean batez ere) liskar eta auzietan parte hartzen zuena. Halako zazpi egoten omen ziren Gipuzkoa osoan.

## Garibai

> Jerardo Elortza

Auzo honen **beheko partea oso ezaguna** egiten zaigu oñatiar gehienoi: Dolaetxe baserria baino pittin bat lehenago dagoen Torreauzarako bidegurutzetik Madalenako zubirainoko kilometro bat pasatxoko zati hori, hain zuzen ere. Autoz Arrasate edo Bergararantz joateko edo alderantzizko ibilbidean, hortik pasatzen baikara sarritan eta derrigorrez. Erreka ondoko **alor lau samarrak eta aberatsak** ditugu horiek, maduran, ibarrean kokatuak, baina 1970eko hamarralditik aurrera fabrikaz bete zaizkigunak. *Ulma* kooperatibataldekoak dira, batik bat, industria horiek, baina ez bakarrik.

Baina badu Garibaik **eremu menditsua** ere. Aldapan gora lur-zerrenda luze eta erregular bat hedatzen da iparralderantz Antzuolako mugaraino eta Landarraitz tontorreraino. **Beheko aldean** aurkitzen dira **baserri, etxe eta lantegi gehientsuenak**, Oñati-Artixa errekatik urrin barik. **Goi aldean hiru baserri soilik** eraiki ziren, **kortak** izandako lur-sailetan eta Erdi Aroaren amaieran: **Duruan, Koixkar Azpikoa eta Koixkar Garaikoa**. Hori bai, hirurak izan ziren batzuetan bi bizitzatakoak.

Izenarena bitxia da, kasu honetan ere. Oraingo auzoa, ekialde eta hegoalde, batez

## AUZORIK AUZO

## Artixa-Oñati errekatik Antzuolako mugaraino zabaltzen da Garibai auzoa

ere Oñati-Artixa eta honen adarra den Irabiartzta errekek mugatzen dute. Baina errekek bestaldean ditugu ezkerretik, ofizialki Torreauzo deritzan auzoan, **Garibaiko dorrea eta Garibaiko errota**. Antzina Lazarragarren senide garrantzitsuak ziren Garibai familiakoak, biak luzaroan gure herrian eta eskualde osoan eragin handiko leinuak. Toponimoaren, leku-izenaren esanahia modu desberdinetan azaldu izan da. Baina badirudi **gari** eta **ibai** berbez osatua egon daitekeela, inguru hori gari-leku oparoa izan delako. Dena den, **ibai** hitza hemengo mintzaira arruntean aspalditxo ahaztuta dago.

Beste bitxikeria bat: Oñatiko baserri giroko hamasei auzoetan hainbat baseliza edota parroikia egon izan dira historian zehar; Garibain izan ezik. Koixkarren jaso zen 1925ean **Jesusen Bihotzaren ermita**, baina aurrekomendatarrek gauzatzen duten auzotasun bereziaren erlijio-premiei erantzuteko gehien bat. Egia da beheko garibaitarrek oso hurrean dituztela **Santxolopeztegiko Madalena eta Torreauzoko San Pedro** ermita zaharrak; baterako zein besterako joera agertu dute betidanik auzo honetakoek. Eta amaitzeko beste argibidetxo bat: **Madalenako eskola** zeritzan ikasleku ezaguna, gaur egun **Bikoitz** jatetxea dena, **Garibai barruan egin zen**, hor ere muga Oñati-Artixa errekek erabakitzen du-eta.



**ARRIZABALAGA**  
Aroztegia

**PAKITA**  
Altzariak

Berezao Ind. 10  
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK



**IRAZOLA**  
Okindegia

Larraña auzoa, 44  
Tel.: 943 78 25 97  
Mug.: 688 630 754  
OÑATI

Baserriko ogia, egurrezko labea

# AGENDA

## UZTAILA ABUZTUA



### MUSIKA

> **UZTAILAK 6 /**  
'PUTAN CLUB' frantziarren  
kontzertua.



Beren burua erresistentzia  
zelula bezala definitzen duen  
taldeak kontzertua emango  
du Antixena gaztetxean.

> **UZTAILAK 22 / 19:00**  
TRISTAN CROWLEY



Udaleko Kultura sailaren  
'Kalean' egitarauaren barruan  
Lazarragako lorategian.

> **ABUZTUAK 14**  
'ULYSSES ENSEMBLE'.  
Kontzertu ibiltaria erdigu-  
neko kaleetan

### Oñatiko II. PATIN EGUNA

> **UZTAILAK 4**  
**FORUEN ENPARANTZAN**

10:00 Talde beroketa, Leire  
Altubek gidatuta

10:30 Patin irteerak  
(kaskoa derrigorrezkoa).  
12 urtetik beherakoak  
(gurasoek lagunduta)  
Madalenaraino); helduak  
San Prudentzioraino.

12:00 Pintxo jana

13:00 Rollerdance plazako  
frontoian eta zozketa.

14:00 Bazkaria Garagardo  
ferian

### ELKARTASUNA

> **UZTAILAK 12 / 10:00-12:00**  
'BUSTI ZAITEZ' EGUNA.

Esklerosia duten Gipuzkoako  
gaixoen ADEMGi elkarteari  
laguntzeko eguna. Material  
salmenta eta informazioa  
Foru enparantzan.

### LITERATURA

> **UZTAILAK 15 / 19:00**  
LITERATURA ETA MUSIKA  
Amodiozko ipuinak Maite  
Arreseren eskutik, Lazarra-  
gako lorategian

### TAILERRAK

> **UZTAILAK 8**  
SERIGRAFIA.  
Antixena Gaztetxeak antola-  
tutako serigrafia tailerra.

### ZINEA

> **UZTAILAK 31 / 22:15**  
ZINEA AIRE LIBREAN'



'Kalean' egitarauaren ba-  
rruan aire libreko zine ema-  
naldia plazako pilotalekuan.

### MENDI IRTEERAK

> **UZTAILAK 4 / 18:00**  
ALOÑARA AZKEN IZPIEKIN  
BATERA  
Arantzazuko parketxeak eta  
Adiskideen elkarteak antola-  
tuta. Prezioa: 3€

> **UZTAILAK 7**  
KATABERAKO MINETARA  
Gaztetxeak antolatutako  
mendi irteera

> **UZTAILAK 8**  
OÑATITIK ARABARA  
Gaztetxeak antolatutako  
mendi irteera

### + INFO

Eskaneatu ezazu QR kode  
hau agendako deialdi  
guztiak ikusi ahal izateko.



## BATUAK S.A.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN  
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Tfona: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50





## KIROLAK

> **UZTAILAK 11 / 16:30**  
ARANTZAZUKO IGOERA  
Arantzazuko XLVI. igoera  
Aloña Mendik antolatuta.

## ERAKUSKETAK

> **UZTAILAREN 6 ARTE**  
NAPAL LAGUNDUZ  
Nepaleko argazki erakusketa  
turismo bulegoan.

> **UZTAILAREN 13 ARTE**  
PINTURA ERAKUSKETA  
Pintura ikastaroko ikasleen  
lanak ikusgai kultur etxean,  
egunero, 18:00-20:00

> **IRAILAREN 14 ARTE**  
OÑATI ORIOTZAPENEAN  
Oñatiko argazki zaharrak  
Ulma Taldeko zerbitzu zen-  
traletan (Garagaltza, 51)

## KALE ANTZERKIA

### 'Zapatos en el aire

> **ABUZTUAK 30, 19:00**  
**FORU ENPARANTZAN**

Kale antzerkia eta zirkoa  
uztartzen dituen kale  
ikusbizuna adin  
guztietako jendearentzat  
'Kalean' egitarauaren  
barrian

## AUZOETAKO JAIKAK

> **UZTAILAK 10-12**  
TRIANAKO JAIKAK

> **UZTAILAK 17-19**  
MADALENAKO JAIKAK

## OHAR ETA DEIALDIAK

> **IGERIKETA IKASTAROAK** Hurrengo kurtsoan kirolde-  
gian eskainiko diren igeriketa ikastaroetarako eta bestelako ur  
ekintzetarako izen-emate epea zabalduko da uztailaren 20tik  
24ra, kiroldegiko bulegoetan (10:00-13:00/16:00/19:00). Iraila-  
ren 7tik 11ra ere eman ahal izango da izena.

## OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Olakua 17 behea, esk. / Tel.: 722 733 712  
argitagarbi@hotmail.com



## LIBURUTEGIKO BERRIENAK



## BIBLIOPORRAK GIDA

Udako oporrei begira Biblioporrak gida argitaratu du udal libu-  
rutegiak, adinaren arabera sailkatutako 37 liburu eta bildu-  
marekin. Gomendatzen den liburu bakoitzari buruzko iruzkin  
labur bat ere irakur daiteke, eta formato elektronikoa dau-  
denak ikur batez bereiztu dira. Udal liburutegigan eskura  
daiteke Biblioporrak gida.

## MERKATU TXIKIA

- > **Uda** garaian umeak zaintzeko prest nagoen Oñatiko 18 urteko neska euskalduna naiz. Gurasoren bat interesatuta baldin badago, deitu 688817457
- > **Etxebizitza** salgai Oñatiko erdigunean. 68m2, bi logela, komuna, sukaldea eta egongela. Guztiz hornitua. Prezioa: 179.000€. Deitu: 659-720664.
- > **Garajea** alokatzen da Ugarkalde auzoko bigarren atarian (22m). Deitu: 629489613
- > **Babes** ofizialeko etxebizitza salgai Ugarkalden. Hiru logela, bi komun, garaje irekia, trastelekua eta beste garaje plaza itxi batekin. Guztiz jantzia. 649969296
- > **Lokala** alokatzen da San Lorentzo auzoan, sukaldea eta komunarekin. Deitu: 670871385

**Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI**

Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

**not+velo**  
FOTODEPILAZIOA

**Olakua 1B, behea** ☎ 943716713  
Udaran ere fotodepilazio seguru eta iraunkorra SUN&SAFE teknologiarri esker

30€ *Tarifa finkoa (sesio/zona)* FOTODEPILAZIOA  
15€ *2X1 zona txikietan* AZALEKO GARBIKETAK  
IPL GAZTETZEA  
OPARI TXARTELAK

www.nomasvelo.es



# IITEN BAT

(\*) Itten: arrastua, pista

## Dagokixon aditza jarri

1. Bazkarixa gertu dago. Etorri ..... hotzittu baiño lehen.
2. Nun afaldu leiken prentzau dostai eta erantzun ..... Arantzazura fateko.
3. Zer ..... egunkarixak atzoko ezbiharraren gaiñian?
4. Nere aurrian balego esango ..... gauzak garbi
5. Saiatu ezkeru, zeu be izan ..... musikari ona.

Aukerak: zeinke / dixue / dostet / zatezai / noskio

## Beste era batera esan


1. Inbixia euki: .....
2. Berba egitteko (edo bersuetaroko) samurtasuna euki: .....
3. Lehen baiño hobeto; askoz hobeto: .....
4. Bestaldera begiratu: .....
5. Ziurtasun edo zihaztasun barik berba egin: .....

Aukerak: Etorrixa euki / Igualeko / Tripajatiak euki / Aleitzira esan / Ezikusia egin

## Kurtzegramia

### DEFINIZIÑUAK

1. Betazal ertzetako uliak.
2. Ebagi luzia eta sakona egin, zartiau.
3. Ustelketan-edo, hasi diran gai organikuen azalian urteten dauen geruzia, edo, orban zurixkak eta harruak, ondduak eraginndakuak.
4. Bero kiskalgarrixa, jota izten zauena.
5. Zerbaitteri darixon zera.
6. Zahartzaruan-edo ulia zuriketia.



## Sinonimuak

- |                    |                                       |
|--------------------|---------------------------------------|
| 1. Geldigorra      | A. Pasautako urtiak                   |
| 2. Aiñubeia        | B. Mehia, eskasa                      |
| 3. Iragako/iragoko | C. Geldik egoten eztana               |
| 4. Jareiña         | D. Laiotza; leku illuna, umela.       |
| 5. Mirriña         | E. Eginbiharrak samur izten dittuena. |

## Esaera Zaharrak osotu

1. Bakoitzak bere astuari .....
2. Etxeko hautsak, etxian .....
3. Otsua aittatu, otsua .....
4. Sutan probaitten da .....
5. Eza ..... da.

Aukerak: agertu / eltzia / bidian / arre / astinddu

## EUSKERAZ EGOGI

### 'Ze ondo pasau zara, e!'

Orain hurrunguan antzerki saixo baten akaberan, horixe esan otsan ama batek bere umiari. Ikusten danez **pasau** aditzaren laguntzailia ezeben egogi ebal. Aditz hau era askotara esaten da eta irrist egitteko aukera asko emuten dauenez, ikusi degigun arazo haundixenak eragitten doskueiñak:

**NOR** (zentzu inpertsonalian, harri-duria adierazteko, eta nundik eta nora galderai erantzutian darabilgu)

-Gure akuerduan gauza asko **pasau dira**, holakuak eta haundi-xaguak be bai.

-Nundik **pasaitten da** arginddar linea?

-**Pasau** egin haiz, e!

**NOR-NORK** (Objetua ageri danian eta 'nolasatuna' adierazten dauein aditzonduekin (ondo, gaizki, ederki, gustura ...) darabilgu)

-Lehenengo pruebia **pasau dot**.

-Nundik **pasau bihar daue** arginddar linea?

-Ze ondo **pasau dozuen**, e!

4. eltzia / 5. bidian  
1. arre / 2. astinddu / 3. agertu /

**Esaera Zaharrak**

1-C / 2-D / 3-A / 4-E / 5-B

**Sinonimuak**

5. jarxua / 6. Urinddu

3. Lizuna / 4. Galdia

1. Bertulak / 2. Brintzatu

**Kurtzegramia**

5. Aleitzira esan / bota

4. Ezikusixa egin

3. Igualeko

2. Etorrixa euki

1. Tripajatiak euki

**Beste modu batera esan**

4. noskio / 5. zeinke

1. zatezai / 2. dostet / 3. dixue /

**Dagokixon aditza jarri**

**ERANTZUNAK**



## San Kristobal eguneko bazkarixa

**B**errogeta hamar urte beteko dattu erretratu honek San Kristobal egunian. *Paulitonian*, Kale Barriko Etxeberria jatetxian atarata dago, txoferrak euren patroiairen omenez egindako bazkarixan. Danetik agerketan xaku: kamionero autonomuak, baso-lanetan jarduten euenak, enpresetako txoferrak, garajetako mekaniko eta karrozeruak, taxistak, kofradixako kapi-llaua, eta abar. Kaletarrak asko, baiña auzuetakuak be ez tira falta. Behetik gora eta ezkerretik eskumara honeitxek ditzuzue:

*Behian jazarritta*: Joxe Mari Guridi, Kale Zaharreko *Luixena*; Joxe Mari Altzelai, *Labekua*; Genaro Billar, Zubillagako *Arretzekua*; Joxe Mari Agirrebaltzategi, *parrokixako abadia*; Joxe Zubia, Goribarreko *Antzokua*; Joxe Mari Azkune, *Montero*; eta Trino Axpe, Garagaltzako *Saintipillaukua*.

*Zutik erdixan*: Jabier Idigoras, *Arrijoilliena*; Luis Korta, *Zubillaga Azpikua*; Juane Arabaolaza, *Usakokua*; Joxe Mari Zufria, *Koixkar Garaikua*; Jexus Agirre, Kale Barriko *Karreteruenekua*; Jexus Mari Ugarte legazpiarra, *Mantxola* (?); Euxebio Uriarte, Araotzeko *Uxarte Garaikua*; Joxe Mari Telleria, Goribar auzoko *Bakeruena*; Pedro Txintxurretaren taillerreko langille karrozero burgostarra; Silberio Urmeneta, *Xolonpo*; Joxe Luis Ugarte, kaletarra, Olabarrietako *Zulatzara ezkonduakua*; Reyes Elortza, Olabarrietako *Auntzerreka Zabarrekua*; Xalbador Abaunz, *San Pedroko kalejakua*; Xanti Galdos, *Uribarriko Aingerukua*; Leandro Arrazola, Olabarrietako *Billar Haundikua*; Segundo Galfarsoro, Portalekuko *Segunduenekua*; beste karrozero burgostar bat; Juanito Igartua, Zubillagako *Zubiaurreko zerrakua*; Migel Elortza, arotza, *Elazarra*; Rufino Idigoras, *Arrijoilliena*; eta Juan Mari Garai, karnazerua (?).

*Goixenian*: Juanito Biain, Patrua kaleko *Perratzaillenekua*; Pedro Agirre, *Karreteruenekua*; azkenengo honen atzian, Fidel Erle, Kanpantxoko *Erlenekua*; Isaak Castillo Monteliu, *Oñatiarra* enpresako txoferra; beste langille burgostar bat; Teodoro Txintxurreta, *Mardonekua*; Gregorio Moiuia, Berezaoko *Mendikua*; Felix Barrena, Torreauzoko *Munazategikua*; Julian Elkoroiribe, Olabarrietako *Billar Goittikua* eta Joxe Zabaleta, *Xabalo*, Olabarrietako *Zabalanekua*.

J.E

Argazkixa Reyes Elortzak itzittakua da, eta guk Joxe Ramon Arrazola Urkiagak oraintxe kaleratu dauen *Historias de San Cristóbal de Olabarrieta en Oñati* liburutik hartu dogu. Joxerrak berak eta Feli Zumaldek beste xehetasun batzuk argittu doskue. Milla esker!

# Oporretan, ezustekorik ez!

Prestatu ezazu autoa, bidaia atsegin bat izan dezazun.

— OÑATI GARAJEAK —

# AZTERKETA OROKORRA

— EGITEA GOMENDATZEN DIZU —

# UZTAILEAN (\*)

*(\*) uztailean azterketa egiten duten guztien artean, operari eder bat zozketatuko dugu.*

## GURE ESKAINTZA



## Oñati Garajea

Goribar auzoa 9

Tel.: 943 78 13 50

garageonati@euskalnet.net